

AXULAR'ekin Ikasle

Etxeberria-tar P., S. J.

Axular idazlea, guren eta bikain. Aren izena txito goora igoa degu. Oraingo euskal-idazleok aintzakotzat artua degu. Ori ongi! Irakasten diguna zabal edatua izan!

Bai ta: Axular'i alde askotatik eldu izan diogu. Begirunez. Maitasunez. Itzalez. Arakalari zorrotzak ere agertu zaizkio. Urdazubi'ko seme argiak ez zigun uste izan, noski, gerokook orrela ibiliko gintzazkionik.

Axular'en ikasleak ugari dira. Nere burua ikasle orien artean sartu nai izan det. Lotsagabekeria dala iruditzen zait. Bainan ez bide da kopeta geiegi izatea. Izan ere, gure aurrekoengan eredu ona ikusi nai izatea ederra bait-da. Edertasun orrek eragin izan dit. Eztiki oso.

Esan zaarra da, autsazpiko txinpartaz, urrengo goizean, sua, ego-kiago pizten dala. Ona gertatua: Berastegi'ko alaba, etxenagusitzarik ez zuan mutillaz maite-mindu. Bi gazteek elkarrekin ezkontzeko otsak atera zituztenean, gurasoek alabari:

—Neska! Neska! Autsean bildutako su apalaz biaramonean lan ttikiago izango den!

—Ama! Ez beldur izan! Guk poxpoloekin piztuko degu. Su berria, ala ere!!

* * *

Ukatzerik ez degu.

Orain ere, leenagokoak baztertu naiekoak erruz! Iraganak eta nolabaiteko guztiak bat-batean lurperatu, austu eta birrinduz izkera txairoa eratu nai degu!! Arrittu egingo al gera?

Bai ta: GERO'ren aita ta idazleak euskera zekianik zalantzan asterik ez dugu... Gugana iritxi zaigunetik asetzeko beldurrik gabe ikasi dezakegu. Gogoa bear! Egonarri andi-iraunkorra. Aldatz-gora ibiltzeak ez gaitzala ikara! Arek idatziak ezeren ikuitturik gabe artu? Ori ere ez.

Axular'ez mintzatu izan diran iakintsu andien ondoan kaxkar naizen onek, euskal-arlor aletxo ekarri nai izan dut. Ortarako 1954-garren urteko *Gero* darabilt. Iyekiaren 462-garren orrialdean, oar auxe arkitzen da:

Egoki dagokion bezela, Bibliako irakurgaiak dira geien darabilzkiak: 286 aldiz. *Ecclesiastes-Ecclesiasticus* 36 aldiz (Gogoetak-Ikastuna); *Proverbia* 35 aldiz (Itzurrak); *Liber Psalmorum* 32 aldiz (Eresiak); *Mathaeus* 31 aldiz (Matai); *Epistolae Paulinae* 29 aldiz (Erromarrei, Korintoarrei, Galatiarrei... eta abar); *Luca* 15 aldiz (Luka); *Genesis* 13 aldiz (Asiera); *Johannis* 12 aldiz (Yon); *Iob* 12 aldiz (Yob); *Hieremia* 9 aldiz (Yeremi); *Liber Regum* 8 aldiz (Samuel-Bakaldunena); *Exodus* 6 aldiz (Irtenera); *Sapientia* 5 aldiz (Yakintza); *Deuteronomium* 5 aldiz (Itzaldiak); eta beste gañerako liburuak bein edo beste.

Lerro auk ederrago onelaxe emango zuketan: elkarren ondoan Lizarraga eta Duvoisin ezarri izan ba'ntu. Biak idazteuna euskeraz ematen ainbeste lan egiñak bait-ditugu. Beren egiñalean alperrik aritu ez ziralazkoa erakutsi dezaiegun, mugona bait-nukean, auke-ran. Nere txiroan itzulpen orien iekirik ez det ekarri ahal izan oneraño.

Beraz, taketa-artean bildu ditudan izenak Olabide'renetik artu ditut: 1958-garren urteko irartalditik. Idaztia erosterakoan orri gogor-antzekoa, margoa arre, aurkittu izan duzu, noski, irakurle: orri ortan dituzu laterazko eta euskerazko izenak saillean.

Bein Olabide onera ekarri dedanez gero, auxe ere aitortu bearra nuke. Idazteuna irartzerakoan begi-motel'edo ibili giñala. Lanerako ez bait-nintzan bakarrik. Utsak itzuri zitzaizkigun. Oriek banaka-banaka biltzen asi nintzalarik, nere irakasle maite nuen eta dan iaunak esan zidan:

—Mutil! Mutil!! Ere buruari orrenbesteko lanik ez akiok eman! Utsik egin dekenik ere iñork ez dik igarriko!!

Bainan, artu nuen erantzukizunak estutu egiten ninduen. Bestalde, irarkolakoek, egungo egunean txito beldurgarri gertatu dira. Ez Euskalerrian bakarrik. Bai, beste leku askotan ere. Lantoki orietan, beti estuta eta ezin iritxiz bezela dabilta ibili. Lan guztiak bertan-bertan liparrean bukatu nai!! Esan ere esan bait-diteke, beren indarrek ahal dutena baño aundigoko lanetan asten dirala.

* * *

Formosa ontara Axular'en GERO garaiz eldu zitzaidan: 1955-garreneko udan irakurtzen asi nintzan: 1954-garreneko argitalpena, alegia. Beste ieki zaarrak ere ukittuak eta ikusiak nitun. Beti ikas-teko gogoz.

Oraingo ontan, Idazteuneko deiak nolatsu zeuden bertantxe igarri nion. Asegaitza izan ni. Gaztetan, artalandare ondoan belar txarrik ikusi nai ez nuen aietakoa. Ta, berealaxe, biziro zuzen ez zeuden dei guztiak garbittu eta eratu bear nituala gogoratu zitzaidan. Asi ba'nintzan asi, bai ederki aspertu ere! Bainan, ekiñean iarraiturik zerbait irten zaidala uste dut. Euskaldun!: orain ementxe eskeintzen dizut.

Auxe ere aitor dezadan: nere izerdien etekiña euskaldunentzat bakarrik dala. Aurrekoek egin izan digutenetik ahal deguna ikasi dezagun...

Arbasoengandik ikasi nai ontan Urdazubi'ko semea aurrelari degu: Tours ko gongotzainari GERO eskeintzen ziolarik auxe dio Axular'ek: «...eztuzu Zuk zeure arrazaz ukatu, etzara zeure leiñutik eta etorkitik hastandu, berezi eta ez aldaratu...» Aitorpen arrai au daginek bere aurrekoak aintzakotzat zeduzkan!

Izan ere, antziñako aiek asko zekiten. Erriak berak asko daki: ezik, erria iakintsu danik ez degula uste izaten. Noski, iakintsuak muga zabalagoak ditu. Iakintsuak zelai agirigoak besarkatzen. Ika-sia, gai berexigoetan ibiltzen dala esango nuke. Iñoiz izatekotan, garai auetantxe banatu bear genituzke ikasia eta iakinttua. Osalaria, bere gaiak zeatz dakizkinean asko ikasia oi da. Osalari ori bera, beste gai ugarietara gertu izan ba'da, iakintsu dala aitortuko... Ikasi gabe ez da izango iakintsurik. Ikasten ibilitako guztiak ez dira iakintsu izatera iristen.

* * *

Puxka bakoitzaren une iatorra Axular'en beti ez dago ongi eta garbi emana. Ez bekit, beraz, ika-mika iñor asi. Nik ere, txoil, ahal dedana egin bait-det.

Adiburuz, GERO'ko 179-garren orrialdera eldu gaitezen. An-txe, laterazkoa izki etzanez degu. Eta, izki etzanezko irarkerak, beste dei-unetan asko lagunduko digu.

Ona deia: Math. 16...

Ez estutu!! Matai deunaren 16-garren atalean orrialdeko deiak diona ez-baña, besterik irakurri ahal izango degu. Bai lateraz, bai euskeraz.

Orrela, billaka ibiliz, Matai'ren 26-garren atalera ioan bearra izan nuen; eta, 73-garren txatalean gelditu.

Era ortan beste zenbait dei ere, billaka ibiliz aurkittu izan ditut. Eta, Olabide'renean antxe aurkittuko dituzu puxka bakoitzaren toki iatorrak.

Oraindik bizi diranetatik iñor ez det aiphatzen. Leenagokoetatik ORIXE ezagunaren itzulpena erabili dut, eta berak diona lerro auetara aldatu. Soilik Eresien itzulpena: Olabide eta Orixe bakoitza bere aldetik ibili izan danik esan gabe, beti bat ez datozela aixe igarri liteke. Eresien zenbakiak, ez daude berdin. Orixe'renak zenbaki batez atzerago.

Puxka berein, toki batean baño geiagotan ikuttu zizkigun Axular'ek. Itzurretan 18, 3-garrena, 64-garren orrialdean eta 317-garren orrialdean. Batean luzeago, bestean laburrago.

* * *

1. Axular'ek sarrera-sarreran, euskaldun zintzoari dagokionez ekiten dio. Lanera bultzatzen gaitu. Izan ere euskaldunok *negutarrak* gera. Neronek giza-endak zati bi eginik ditut. *Negutarrak* eta *udatarrak*. Lenbizikoak, alderdi otzagoetan bizi diralarik lanari ekin bearren diranak. Besteak, zelai ta lurralde epelagoetan bizi bait-dira, lanari errexago iges egiten oitutakoak.

Lant zezala eta begira ongi Parabisu hura, Asiera idaztiaz 2, 15 = Olabide k 1958-garreneko irartaldian: Gizona... Eden'go baratzan ipiñi zun; arek ua landu ta zaitu zezan.

Lana, alabañan, gutxik maite izaten. Gure garai auetako askoren ezin-egona nondik ote-dator? Ikusi besterik ez dago. Egunero zere lantegira ez ba'zoaz, otorduak mee izango dituzu. Atsedendialdiak gutxi. Poza urri. Beti zerbaitetan ari bearra astun egiten zaigu. Ikus... ez berak eta ez haren aitzinikoez ere ezin bururik-egin zutela eta ez iasan hain karga andia. Bidalien Egiñetan 15, 10 = gure arbasoek eta gerok ezin eraman dugun uztarria ikasleen lepoan ezarri bear dalakoan.

Bai, min izaten degu. Beti iñoren menpean. Zapalduta gauzkatela iduritzen. Aberatsak bakarrik atsedena eta nai dituzten betekizunak. Dezagun ian eta edan; dezagun pausatu eta atsegin ar; zeren berdin, eztugu deusen eskasik, eztugu egun hautan eskean ibiltzeko perilik. Luka deunarena 12, 19 = Ots!, orra urte askotarako ogasun yoritsu bilduta. Atsegin artu. Yan. Edan. Oparo bizi!

Ortara izerdiari bizkar eman ahal izango. Oporrean bizi. Ibiltzeak asmatu. Asti duzue; zeuen ongiegiak aitzinerat eta mintza-arazitzen zaituztezate. Irtenera idazti 56, 8 = alperrik daudelako, otsa iasorik, «gure Iainkoari iauropak eskeintzera ioan bear dugu».

Gizonak beste ametsik ere izan. Iainkoa gure Aita da, Ari asko zor diogu. Arek esana degu, ludi osoa landu dezagun. Txoriei bezela egak ez zaizkigu azitzen, beraz, ameslari izatea aizu. Egaztiak baño askozaz goorago eldu gera. Gizona sortzen da travailluko, eta egaztina aireko. Iob 5, 7 = gizakia neketarako iaioa bait-da, txorikumeak goora egatzeko bezela.

Erruki gabe lana egin eta Apolo'koek egaketak eratu. Zoaz, nagia, xinaurriagana, eta kontsideraitzatu haren bideak eta bidexkak, ioan-etorriak eta itzul-inguruak; eta ikasiko duzu zuk ere nola bear duzun aitzinerat eta beti ere bizi, ibili eta gobernatu. Hark, erakuslerik eta kidaririk gabe, berak bere buruz biltzen du udan neguaren iragaiteko bear duen mantenua, bazka eta bihia. Itzurrak idaztitan 6, 6-7-8 = Nagitzar! Txingurriarengana oa: aren bideak ikasitzak! Ea, sena izaten ikas ezak! Ark agintaririk ez. Irakaslerik ez. Nagusirik ez. Ala ere, udan bere azkurria inguratzen du: uzta-roan bere ianaria biltzen.

2. Gizonak, auer eta beti-iai naiekoak gera. Eguzkipean besterik ez bait-da gizonaren antzeko. Itz-egiteak ere beldurra ematen

digu. Bitartean onako auxe ere egi izan. Oraintxe eun urte, gizaduan zebiltzan okerrak salatzen bakar batzu asi ziran. Ondoren bai Doibatza ere, denen Doipuru Lon amairugarrena zana. Alperrik? Ez, orixe. Laterrietako agintari ospatsuenak ere beldur eta ikaratzen asi ziran. Ainbeste ots eta esanen zitua orain ikusten degu. Ezik, sarritan, orain arte ezer egin ez dala iduritzen askori. Axular'ek egoki oroiterazten digu. Olakoak zertako trabatuko du lurra? Luka 13, 7 = Zertarako egon bear du, bada, lurean alperrik.

Geienez ere, olako ale-urri diranek sugetzarren etzaltoki gerta litezke. Alegia: itzalpean kanaberaren estalgunetan egiten du bere loa, han pausatzen du. Yob 40, 21 = ...osto-zar-zabaldun-pean du ark etzangua; zingiradiko sistortzan izkututzen da. Puxka au, Axular'ek etsai gaiztoari egozten dio. Sulezean aztarrika ezin-egonean bizi danari. Gure idazle gurena, bere garaikoa izan.

Etsai eta mamutzar ankerra alperrik aundienetakoa izan. Bere alperkeriak, berriz, anhitz malizia erakutsi izatu. Ikastuna idaztitan 33, 29 = oporraldiak gaitz asko irakasten ditu. Iragan mintzen gizon nagia ren landatik eta guztiak ziren asuñez, elorritz eta belar gaixtoz beteak, eta esiak, erstegiak eta armorak ere, eroriak eta deseginak. Eta hek hala ikusi nituenean, egin nuen gogoeta, artu nuen exemplo, ikasi nuen zer egin bear nuen, eta zentzatu nintzen bertzeren gañean. Itzurak 24, 30-31-32 = Alperraren alor ondotik igaro naiz, eta zuntzunaren maasti ondoan ibili, eta, ara!: aietan asunak mardul goora; eta, oro ñarrak betetzen zuten, arresia ere iraulita zegon. Ori ikusita, nere baitara itzulirik, gogarketaz irakaspén au atera dut... Landertzari iges egin bearra, eta aora daramadana nere lanez eskuratzea, Paul deunaren irakaspenez: ebasten zuenak, eztezala ebats, baiña travailla bedi, manaia bedi, eta halatan izanen du bere eta bertzeren. Epeso'koei 4, 28 = ostu oi zunak ez beza aurre-rontzean ostu; eskulan egokiren bat egin beza, ordea, bearraldian dagonari nondik eman izateko.

Ontan, orain, non-nai entzuten dana auxe: Eman? Ez!! Askozaz ere obe lanean irakatsi. Errialde aberatsak ba-dira. An bizi diranak zer-nai baldin ba'dute, lana latz eginda lortu dute. Orrelaxe aukera guztien iabe izatera iritxi.

Olako iardesarientzat, beren buruak zuri ditzaten, onako auxe bai egoki datorrela: Esku laxoak eta alferrak, probetasun dakarke,

baña bortitzak eta trabaiariak, aberastasun biltzen du. Itzurak idaztikoa 10, 4 = Esku nagiak, lander-izatea beretzen; beso langilleak, bañan, aberastasun dakar.

Eziñean aurkitzen dalarik langilleari lagun dezaiogun. Erri azkarrek eta izerdi-beldurrik ez dutenek, lan egin bezate, gogor eta asmo okerrik gabe; eta enda xumegoei ekinlari izaten irakatsi. Utsean iñori ezer ez eman... (Esana orrela degu). Ezik ematen ere iakin bear izaten dala!! Gibela ezazu zeure oña adiskidearen etxetik, ez han maiz ibili, ase etzezazun, iguin etzakitzan eta gaitz-ets etzaitzan. Itzurretan 25, 17 = Lagunaren etxean oña bakanetan sar ezazu, zutzaz aspertuta iguin ez zaitzan.

Irugarren Gizasail zer dan Axular'ek ez zekian. Alegia: 1779-garren urteko ua *le Tiers Etat*. Itza asmatu bai, asmatu zuten. Bai laister aaztu ere! Itz orren antzera udaguenillaren 14-garrenean 1952-garren urtean Alfred Sauvy'k Irugarren Gizartea asmatu zun. Bañan, itzak Sauvy'k eman zion adirazpena asko galdu du. Ondoren, berriz, Bandung'en 1955-garrenean, artean sailkatu etziranak bildu ziran.

Delako Irugarren Ludi ontan bizi bait-naiz, itzaren zirrara nolakotsu dan igarri diogu. Ez ote-gera mikuin? Izena asmatzen asi, ta olakoa asmatu!! Bereixketa tximena oso! *Irugarren Mundua...* Nik, ezin det irentsi! Izena maite-gaitza zaidala esan nai det. Lanean, beste bi mundukoek bakarrik ba'lekite bezela!! Iñork ere ez du beretzat nai alper izenik. Nagi geranik ez degu entzun nai izaten. Ezain eta auer nor da? Gure auzoan bizi ez dan berendi, noski! Ez, olako eraskiñak ez dezazkiogun iñori nolanai egotzi.

Mugonak eta egokierak alakoak izan dituztelako, berein erri aurrelari gertatu dirala! Ori ongi!! Aurrelaritza ori, malla guztietan ikaskizun dedin, gizatasuna ere nai litzake. Sara'ko erreter maratzari entzun dezaiogun: Trabaiillu onean izanen da franko eta frankia; baiña itz anhitz den lekuan, maiz da probetasuna eta eskasia. Itzurren idazti 14, 23 = Edozein lanek ugaritasuna dakar; itz utsalek, ostera, lander-izatea. Itzez irakatsi... bai!! Itzez ere irakatsi bear da!! Egiñetan, bizikeran, eta eguneroko iardunetan irakasle argi-arraia izatea bezelakorik ez.

3. Lurralde otz eta negutsuetan ere oe ta etzanguak ba-dituzte. An, etxe-barruak ederki berotzen. Anchorage'tik igaro nintza-

nean ikusiz dakit. Ontzitik irten eta aterperatu giñanean, izotzaren antzik ez han. Alderdi epelagotan-lur-gain gorria oe izan liteko. Alperrentzat bakarrik ote? Puxka ontatik ala uste genezake: Atea bere erroetan bezala, itzultzen da nagia ere bere ohean edo kamastran. Itzurak 26, 14 = Atea bere orpoetan bezela, nagia, bere oean iraulka dabil.

Ateak orpoak ontarako: iriki-zabal ariñerako. Langilleak ohea, urrengo ekiñaldian indarra izan dezan. Gaxoak oea ez maite: ala ere, an etsi egin bear. Beti-jai daginak, bazter oro oe eta etzangu.

Lanean lertu arte ari arren, indar gutxi danean, etekin urri. Etorri ziren erditzeko pontura; ordea, etziren erdi, etzen hartakotzat indarrrik aski. Isai Igarlearena 37, 3 = umeak irrikitura eldu, ta amarengan erditzeko indarrrik ez. Asmorik eta erabakirik ez danean, indarra utsal gerta, ezer gutxirako. Asmo utsa ere, ametsa baño asko geiago ez. Nai du ta eztu nai, nagiak. Itzurak idazti 13, 4 = Nagiak gura bai; iritsi, ordea, ez. Nolanai ere beti-jai'ren giroa! Errukarria! Nagientzat eta alferrentzat egun guztiak dira besta. Itzurak 21, 25 = nagia, gurak iltzen du.

Toki bakoitzean, alderdi artako gizurenak. Formosa'ko auek goiko Txina zabalean gorai patzen dituzten zintzoak dituzte gogoan. Ain xuxen, leenagoko umandi gogoangarrien izenak berritu al izan dituzte: ogeita geiago egun eguzkirik ikusi gabe, egun berdotxak izan ditugu. Etxe barruan egon bear. Ta, ipui zaarrak aaztuko zaizkigun beldurrik ez. Olako giro bustietan, emengo nekazariei auxe ezin egoki: Traballatu nahi etzuenak otzaren atxakia egin zuen. Itzurak 20, 4 = nagiak, udazkenean ez du goldetzen. Esan auxe bai egi dala. Ementxe: bizi naizen txoko ontan: bigarren ebaki-aldia udazken-udazkenean izaten dute. Alea legortzeko ia indarrrik ez eguzkiak. Nekazari onak, beren saillak bertantxe goldetzen dituzte. Nor da, ordea, nekazari ona? Indarra dun uaxe, noski. Orain, baña, beso gazte indartsuak lantegi auditara daramazkiten ontan, lurrari muzin egiten zaio. Ondoren, udaberrian lotarako betik ezin arturik ibili bear. Eta, neguak luze irauten ba'du... 1970-garrengo ontan bezela... berandu ibili bear!

Zerbait bertan-beera utzi nai duanak ataka eta maratillak ugari. Nagiak, bere lekutik igitu nai eztuenak, trabu andiak edireitentu. Itzurak 22, 13 = «Leoi bat, or dabil» dio nagiak; «il nazake bide

erdian». Adiskideaz desegin nai duenak, adiskidetasuna utzi nai duenak, okasinoak billatzeintu. Itzurak 18, 1 = berezita bizi dana, bere oldez dabil.

Oldez ibili. Gerok aukeratua maite izan. Igesa ontzat artu. Ogenik edatuena izan! Gero erabakitze orrek Augustin deuna ere enuxu-banuxuka zerabillen: emazteek zedukaten bortizki lotua. Orixe'ren itzulpena Aitorkizunetan, 8, 2 = emazte ark zailki niñedukan.

4. Etorkizuna, ikuskizun!! Umetan eta geroxeago ere ainbeste aldiz entzun izan nuena. Aldiak eta aroak bestelako margodun gertatu diran ontan, era ortara mintzatzen ia ezin ikasi degu. Batez ere, gizonak ahalmen eta indar guztiak bere esku ditula uste degun ontan. Baldin Iainkoak nai badu, baldin bizi bagara, eginen dugu haur edo hura. Iakue deunarena 4, 15 = Iaunak nai ba'du, edo bizi izatekotan, au edo ori egingo dugu. Puxka au onera aldatzean, Leitzako seme Uarte tar Bingen gotzai iauna datorkit gogora: arek bai, bai aoan Iakue deunaren esana. Orixe! Txina zabalean, antxe Wuhu'n gurekin zanean zenbait bider entzun izan ote-genion!!

Ona beste aolku bikaina: Zaudete prestik eta iratzarririk; zeren, eztakizute eguna, eta ez orena. Matai 25, 13 = Atzarri egon, ba, ez egunik ez garairik ez dakizute-ta.

Anhitz galdu... bere buruari etorkizuna sobera prometatuz. Ikastuna 29, 20 = Baitzalle yaikitzeak aberats asko ondatu ta itsasoko uifiek bezela, yarrosi ditu. Axular'en euskeralbena eta Olabide'rena ez datoz bat. Irakurleak ez beza arrikizunik aurkittu olakoetan. Beste uneren batean, antzeko zerbait ikustea ba-liteke. Emen baitzallearentzat degun aolku au, eguzkialdeko oiturak ongitxo zekizkianak emana dugu. Eskatu bai! Ondoren, bein malleguz artua itzultzea luza eta luza... artzekoduna oso ahaltsua ez ba'da beintzat. Idazteunekoak zuzen erabili ahal izateko, onena an zer idatzi ziguten ulertzea eta azterpena saiets-iritzirik gabe egitea. Bein ere ez ditzagun idazteunekoak gerok naiko genduken alderdira ekarri. Ori egin izan dala? Orain ez naiz auzi ortan sartzen.

Eztaki gizonak bere finaren berririk; baiña, nola amuak atzemaiten baititu arraiñiak, eta egaztinak segadak, hala gizonak ere atzemaiteintu bere eriotzeak. Gogoetak 9, 12 = Gizonak, bere garaia ez bait-dazagu: arrainak sare iruzurtian bilduak bezela, eta txoriak

xedeban artzen diranez, elkaitza gañera sostean datorkienez, gizonak ere atzemanak bait-dira.

Dabid bakalduna, gizon argia. Iainkoarentzat eskurakoia. AREN aginduekiko esangia. Bere Egillearen arazoetan azkutsua. Ala ere, zertxoren bat oker irten zitzaiolarik, Tekua'ko andereak esatekoak garbi adirazi zizkion: Uraren pare gara; ura bezala linburtzen gara. Samuel'en Bigarrena 14, 14 = Izan ere gu ilko gera, noski; lurrean eralkitako ura bezela, atzerarik gabe.

Oraintxe iru urte izango dira. Sarri oi nuanez aldapa goora nindoan. Tayeldar zirtolari nuen lagun. Nik ari: Guztiek diotena beritzen dizut, aberatsa zerala! —Ori ongi!! Zuk ori esan! Egi ez dala ere, entzuteak belarria limurtu egiten du. Olako zerbait gertatu zitzaien Adam eta Ebe'ri iztarbegikoak au iardetsi zietenez: «etzera-te illen». Asiera idaztian 3, 4 = ez zerate ilko, ez. Zirikalariak esan eta aiek sinistu. Bein ere ez iltzea itxaro zuten, agian.

5. Ler gaizto egiñez, lanean zerbait bildu dizunak, bere eskua berankor luzatzen.

Biamonean zer gerta diteken ez bait-daki. Neska gurbillek ala erantzun: ezteretzuegu eman nai, zeren, benturaz, gero ezkenduke guretzat aski. Matai 25, 9 = obe duzute saltzalleengana yoan ta zerrontzat erosi; guretzat eta zuentzat gutxi izan ez dedin. Itz auen arauaz besteak sorozteko gogo pittiña izaten degu. Onako auek bezela: Goazin emendik, zeren baldin hemen bageneunde, benturaz bertze hauk bezala irets ginitzake gu ere lurak. Zenbakiak idaztian 16, 34 = lurak bear ba'da, irentsi ez gaitzan.

Axular ek darabilen *bentura* ez genduke oker ulertu bear. Idazle iaualarena zuzen iakin dezagun, alboan oraiñagoko itzulpena ipintzen alegindu naiz. Adiburuz: eta benturaz halatan Iainkoak barkatuko derauzkitzu zeure bekatuak. Daniyel, 4, 24 = zure bidegabekeriak landerreganako errukiz ordaindu itzazu, oraindik bakez yarra ote zaitezken. Antzeko esakera degu beste au: Nork daki, mehatxatu bagaitu ere geure Iainkoak, eta erran badu ere aserre dela gure kontra, ea gure urrikimendua eta penitentzia ikusirik, itzuliko dentz bertze aldera, ematuko zaikantz bere kolera, eta utziko gaituentz gaitigatu gabe? Yona Igarlea 3, 9 = Agian Yainkoa itzuli ta garbaituko da, ta aserrea ibituko zaio, ta ez gera galduko.

Zeatu ez gaitzan, beraz, lotik iaiki egin bear, onako ontan bezela: Zer ari aiz gizona? zerk aratza lo? eztakusak itotzera goazila? Haik ortik, iar adi orazinotan, egiok eure Iainkoari otoitz, eta benturaz halatan eskapatuko gaituk. Yona Igarlea, 1, 6 = Oraindik ere lo al-ago? Yaikita dei akiok ire Yainkoari, Yainkoa gutzaz oroi ote-dan, ta gal ez gaitezen. Orrelatsu zebiltzan anai bi aiek, eta gazteak esku-erakutsiak igorri zizkion: benturaz huneletan adiskidetuko gara. Asiera Idazti 32, 21 = apika abegi ona egingo dit.

Axular'ek kezka izan zuen eta Asiera Idaztiko puxka bi zuritu nahi izan dizkigu: Benturaz illen naizela Asiera 3, 3 = ez ian ortatik, ez ikuttu ere, il ez zaitezen... Eta, alabaiña Iainkoak etzioen halakorik erran, etzioen *benturarik* aipatu. Garbiki eta segurki erran zioen, iaten zuen egun berean illen zela. Asiera 2, 17 = artatik ian zenuen egunean, ilko zera-ta.

Izangoaren antza zizta ba'geneza zer ez genduke egingo? Lee-nagoko aberatsak sumatu zigun: Zer eginen dut? Norako dut hunenbat ogi, arno, bihi, fruitu, eta onhasun? Eztut edukitzeko lekurik ere. Ba-dakit zer egin. Leheneko bihitegiak, ardandegiak, sotoak, salak eta ganbarak andituko ditut! Luka deunak 12, 17 = asma- ketan asi zan, esanez: zer egingo? Nere uzta non bildu ez bait-dut! Esan zun: orra, nere egitekoa. Nere mandioak irauli-puskatu eta zabalagoak egin; eta aietan nere uzta ta ondasun guziak bildu. Ezik, iardespena berialaxe izan zuen: Ah eroa! zentzu gabea! zer mintzo aiz? zer gogoeta darabillak? Egin dite ireak; gaur eskatuko zaizkik eure animaren, gaur gorputzetik aterarik eramanez aute. Eta gero orduan bildurik daduzkan on oriek norentzat izanen dira? Luka deunak 12, 20 = Zoro ori! Gaur arratsean zure bizi-eske datozke. Zuk bilduak norenak izango dira?

Axular'ek zer nai duan? Gu zuhur izan gaitezen. Eta, puxka auxe dakarkigu: Konberti zaitezi, bekatutarik ilki zaitezi; eta eztezazula berant, eztezazula egunetik egunerat luzat, zeren gutien uste duzunean, ahantzienik zaudenean, neurria beteko da, Iainkoa asarretuko da... Ikastuna 5, 8-9 = Iainkoarengana biurtzea ez luzatu, ta egunez-egun ez geroratu. Iainkoaren sumiña sostean erneko bait-da, ta apen-egunean porrokatuko zaitu. Esana ta iritzia indartzeko, Urdazubi'ko semeak au dakar: ezterrozula zeure adiskideari, dohala eta

datorrela; bihar emanen diozuna —baldin baduzu ematekorik— emozu berehala. Itzurak 3, 28 = Iñori ez esan: «Zoaz eta itzuli zaitetz: biar emango dizut», bertan eman al ba'dezaiokezu.

6. Ain gera luzalari!! Ona izatea beste noizpaiterako aixaxa guk uzten. Etekiñeko ariketari eldu... bai!! Bañan, noiz! Gerok ere ez bait-degu iakiten. Makurtzen asiz, arri konkorra amildegiko zulora baño uxtuzago murgiltzen gu okerrean. Dabid bakaldun giartsua bezela: errebelatu nintzen eta galdu ardia bezala. Eresietan 119, 176 = ardi galdua bezela nabil zoro. Orixe'k bere Salmutegian 118-garrenean: ardi galdu antzo nabil.

Ardi galdua... Bai, noski! Nora doan eztakiana, urrutiratu... onako ontan bezelaxe: zuregandik urruntzen direnek, fin-gaitz eginen dute. Eresietan 73, 27 = Zuregandik urruntzen diranak, galduko bait-dira. Orixe'k = Zugandik urrun doazanak bai galduak! Alakoak bai kupigarri: begira beute enegandik urrundu eta apartatu direnek; zorigaitz hekentzat! Ose igarlea 7, 13 = Aien zori txarra, Niregandik aldendu diralako! Luza eta luza, miña sendakaitzago: eritasun luzeak eta zaharrak nekatzen du midikua. Ikastuna 10, 10 = sendagillea gorabera, beti eri dagona, ta gaur errege ba'da ere, biyar ilko dana. Olabide'k onelaxe eman zigun. Beste izkuntzetan ere, ahal duten bezela dabilta-ibili txatal ori itzultzerakoan. Au irakurtzen dutenen artean idazteunlari iaioak arki litezke: unetxo au obe dezaten, nik aiei dei egiten.

7. Iraizean bederen auxe aitor dezadan: Axular entzutetsua ez zala berariz itzultzalle izan. Besteai artu izan ziena, bere erara erabili izan digu. Onako ontan ere alaxe: Nor nola gobernatzen baita gaztean, hala komunzki egiten ohi da zahartzean ere. Itzurak, 22, 6 = Aurrari, artu bear dun bidea, asieratik irakatsi: zaartzaroan ere, ez bait-da andik aldenduko.

Lanaren eskerga. Eginbearraren gaitza! Alabañan, ezin utzizkoa. Semeak dituzunean, eskola itzazu aurretik, uzkur itzazu, eduki ttipi direño azpitik. Ikastuna 7, 23 = Semeak bai al dituzu? Ikaspidea emaezuz!, ta aurtzarotik azi itzazu. Urdazubikoak alabak ez bide-zizkigun aintzakotzat artzen. Ona, Ikastunak zer dion 7, 24 = Alabak bai al dituzu? Aien garbitasuna iagon!, ta ez zakizkie ortzargiegi azaldu.

Dabid bakaldungaiak oituraren eza onela aitortu zigun: Arma haukin ni ezin igi naiteke, zeren ez naiz usatua. Samuel'en lena 17, 39 = Auekin ez naiteke ibili; ekiñaldirik bein ere ez bait-dut egin. Zer ikusi, ua ikusi! Onerako bezela, okerrerako ere. Eta, mairu-erriko mairu beltzak bere larru beltza, eta tigre arrak ere bere nabardurak, kolore pikardatuak, alda, utz eta muta ditzanean, aldutuko, utziko eta mutatukoitu presuna gaixtoak ere bere usantzako gaixtakeriak eta bekatuak. Yeremi 13, 23 = Beltza danak bere mintza zuritu edo katamotzak bere larru nabarra aldatu ote-dezake? Zuek ere, gaitzean oituak zeratenok on egin al-izango duzute? Ezin eta gaitz ontan, ixrraeldarrak zerbait ikasiak genitun, antza. Gaixtoaren ezurrak beteko dira gazte-denborako bekatuez, eta harekin batean lurrean ere lokartuko dira, eztute bein ere utziko. Yob 20, 11 = Aren ezurrak betetzen zitun gaixtakeriak, aiekin autsetan etzango dira.

8. Gai au ezeztien iritziak indartzeko litzake ona. Esaten baitdute: zuzendu litekenik ezer bai al da, gero? Inguruka edo inguru-nean dabilta gaixtoak. Eresiak 12, 9 = Gaiztoak, baranoan dabilzke... Oriek oro bittin eta pittikak ote? Ikus: bitñiak bezala... azkeneke egunean, ezkerreko aldean ibeniko. Matai 25, 33 = akerrak ezkerrekoan.

Kezka gorriak gizonak beti izan ditu. Azkesterik ez dukeana ere ba-dala'ta: eztela barkatuko mundu hunetan eta ez bertzean ere. Matai 12, 32 = ez zaio mende ontan, ez eta gerokoan ere asketsiko. Olako gogor eta beltz-izatea gerok pizten deguna izan. Goiko Aitak, ...iguzkiak bezala egiten du: onei eta gaixtoei, guztiei argitzen deraue. Matai 5, 45 = bere eguzkia on eta gaiztoen gañera atera(tzen) dun Aitagoikoaren seme izan zaitezten.

Bereizketa non? Idazteunak, ixrraeldarren arauaz egiten eta gaiak guri adierazten. Bestela aritzerik ez bait-zuten. Ixrraeldarrek oso-izate ta kopuru biribilla adirazteko itz berexirik ez zuten. Orrela, txatal ontako *on eta gaizto*, euskerazko *guzti* adirazteko dugu. Beste ontan bezelaxe: Iainkoak nai du guztiek salba ditezin. Timote'ri len-eskutitza 2, 4 = gizakume guztiak gaizkatzea... Berak nai du-ta. Paul deunaren esan onek arestikoa dirudi. Alegia, ixrraeldarren zaar-kutsurik ez duena. Sara'ko erretoreak ere gai ontan alakoxe

zaar-giroa artu izan dizu. Onela iarraitzen bait-du: lateraz eta itzulpenik gabe, ordea: Irtenera idazti 4, 21 = eta Parao'ren aurrean egitzizu. Nik, berriz, biotza gogortuko diot, eta ez dio erriari irtezen utziko. Erroma'koei 9, 18 = nai dunaz erruki da, ta nai duna gogortzen du. Isai 6, 10 = toildu ezazu erri onen biotza.

Irakurleak ez bezait aaztu, enaizela emen ari Idazteunekoak azaltzen, baizik Axular'ek Idazteun-puxkak zer-nolatsu itzuli izan dizkigun adirazten.

Eta ttipian eta apurrean leial dena, arrazoin ba'da andiagoan ere enplega dedin. Matai 25, 21 = urrian zintzo izan zera-ta, ioritsuan eskudun iarriko zaitut. Nagusia orrela mintzatzea biotza ukitzeko ziteken. Ontara... ukitzean sentikortzen dira. Abestirik Ederrenetik 5, 4 = ua biotz-ikara nik!

Bestela dabiltz-ibili onako auek, gaizki egitean eta egin-ondoan, guztietan atsegin artzen dute. Itzurak 2, 14 = oker egiteaz poztan eta zantarkeririk nabarmenenaz illaraintzen... Baita gaiztoak, bekatuen osinean sartuz-gero, eta hetan luzaro usatuz-gero, eztu antsiarik, eztaduka konturik. Itzurretan 18, 3 = Gaiztoa etortzean, esetsa ere arekin: eta, laidotzallearekin, gerena dator. Emen *gaiztoa* norbait litzan ulertu bearra dago.

Izan ere, presuna egarriak ur otza bezala, edaten dituzte bekatuak. Yob 15, 16 = gogaikarri... txarkeria, ura bezela edaten dun gizona. Olakoen amaia ain da hits! Zeuen bekatuan illen zerate. Yon deuna 8, 21 = zuen ogenean ilko zerate. Lendik ere adirazi izan zaigu: biotz gogorra gaizki izanen da bere azken-finean Ikastuna 3, 24 = Biotz gogorra azkenean darorke.

9. Axular'ek idazteun osoa ederkitxo ausnartua zeukakigun. Iauna, zure gobernua eta ordenamendua... pisuan eta neurrian egiten baitituzu. Yakintza 11, 21 = Zuk, ordea, neurri, zenbaki ta azta egokiz dana aztertu duzu. Pisua eta balantza dira Iaunaren iuiamendu. Itzurak 16, 11 = aztaga ta txalin ziñak Yaube k zuzentzen ditu. Onako auxe, gizonona, gure-gurea betidanik: Ixrael, giritinoa: galtzea zeureganik, erremediatzea duzu eneganik. Ose Igarlea 13, 9 = Ixrael... urgazia Niregan duzu. Ariari ekiñez Axular'ek dio: Inguratu nuen itsasoa neure mugez eta mugarriez; ibeni nerautzan ate-sarraillak; eta erran nioen «huneraíño, kostaraíño etorriko

zara, eta ez aitzinago»... Yob 38, 10-11 = ...eta ate eta atagak ipiñirik, nere muga erabaki nionean, «Aurrera gabe, oneraño atorke» esanez, eta ire uñen oldarra emen autsiko zaik.

Itsaso-gai au Ixrraeldarrek asko maite zuten, noski: ba-du itsasoak bere xedea, bere marra, bere mugarrria eta zedarri iakina. Yeremi 5, 22 = Ni naiz orratifño, ifñoiz autsiko ez dun betiko erabakiz ondartzta itsasoari mugarriztat ezarri diodana. Itsasoak irentsi zituan Parao ta Parao'renak, Nagusi Iaun Yaube'k esiak eten zioz-kalarik: Erdietsikoitut, atrapatukoitut, aspertuko natzaie, guztiak ezpataren ahotik iraganeintut. Irtenera 15, 9 = Esetsi, atzeman ta txaukiñak banatuko ditut; aietzaz aseko naiz, ta ezpata aterata nere eskuak sarraskituko ditu.

Itxoille aundia degu Iauna guri onak zabal dezazkigun. Igurikitzen du Iainkoak gutzaz miserikordia izaiteko. Isai 30, 18 = Orduko zai dago Yaube, adeibera zuei azaltzeko. Ontzia ezpañetaraño bete ba'da zer? Bete da lurra gaixtakeriz, mukurutu da maliziaz. Asiera 6, 13 = aiengatik, lurra, okerkeriz beteta bait-dago; ta, ara!, Nik lurrarekin batera suntsituko ditut.

Iainkoari gogorra danaren antza eman izan zaio, arean. Ez beti. Ikus: Nai al duzu, bada, goazin eta gaixto hura atera dezagun, bil dezagun? Matai 13, 28 = Iraka biltzera gu ioatea nai al duzu? Erantzun zintzoa berialaxe izan zuten: Igurikazue apur bat... luza Uztaraño... orduan ebakiko ditutzue guztiak...; onak bildurik altxatuko... gaixtoak... sura egotziko. Matai 13, 30 = Utzi biak itaiteraño azitzen; ta itaiterakoan itailariei esango diet: «Iraka aurrenik bildu ta surtarako espalka lotu ezazute; garia, berriz, nere mandioan abazkatu.

Ori guztia, erran zuen biotz-min andi batekin, Asiera 6, 6 = garbaiturik, beraz, eta biotzeko miñez Yaube'k esan zun... neurk egin nuen gizona, neuk deseginen dut, Asiera 6, 7 = Lurgañetik erauziko dut, irazan dudana gizona. Zio aundiz, arean; bete da mundua bekatuz eta maliziaz, Asiera 6, 11 = bitartean lurra, Iainkoaren aurrean, ustel ta zakarkeriz beterik zegon.

Aula erorkor. Gizonen izatea txit mugatua. Gure begiek ezer ikusten ez. Okerretik gibela gaitezentzat ere argia bear. Ezean, Yaube'k au yaulkiko: Zeuen... probetxuagatik eta geiago bizitzeagatik bedere, etzerate bekatu egitetik begiratzen? Yeremi 44, 7 = Zer-

gatik... emakume, umetxo ta iñutaurrei eriotza ekarriko dien ogenzar ori? Noiz arte? Yaube'rentzat ere eragozpenak izaten-ote? Eguzkipean bezela, agian? Ezterauet emaiten bereala, zeren ezpaitira oraiño bete eta konplitu Amorreoan bekatuak. Asiera 15, 16 = Lau garren gizaldiraño ez dira onara itzuliko, amortarren gaiztakeria ez bait-da oraindik mukurutu.

10. Idazle zintzoak bere lan GERO ontan errukiari eltzen: fidantzia da esperantza bat, bortiztua, indarztua, eta ustez ongi finkatua eta seguratu. Bizia liberalki... eman baitzuen. Paul deunak Erromarrei 5, 5-6 = Iainkoaren maitakuntza gure biotzetan ixuria dagolako. Izan ere, mugonez, oraindik ergel giñanean, gaiztoen alde Kisto il zan. Zeruko eta lurreko gauza... bereak baititu. Eresi 24, 1 = Lurra ta aren betegarria Yaube'rena da. Orixek = Iaunarena da lurra ta ua betetezen dutenak.

Itz indartsu utsez irazanak, ala ere. Egin bitezi erraitez egin zituen, Eresi 33, 9 = Oro Ark esanda egiña bait-da. Orixe k = Ark esanik egiñak bait-dira. Ezta ibiltzerik eta ez igitzerik... haren naia... gabe. Bidalien Egiñak 17, 28 = Arengan bizi, igi ta izan gera-ta. Are: Arengan ustea izan eta iñor ez galtzen. Ikastuna 2, 10 = Antziñeko gizakiak begira ta ikus, Iauna itxaroz-gero, nor aalketu da? Iaunarenganako lotsa ta kirmen izanez-gero, nor izan da bertan bera utzia?

Iñor ere ez, ereslariak aitortzen duanez. Nai baduzu zutzaz ongi dohan, eta ongi iltki dadin, ibentzatzu zeure esperantza... Iainkoa baitan Eresi 55, 23 = Zure buruaren ardura Yaube'ri utziozu eta Ark irozoko zaitu. Orixe'k = Zure kezka Iaunagan egotzazu, eta Berak zaitu aziko.

Alabaña, ez uste ustel-utsalez. Ezean au ialkiko bait-dizu: ¡Ah!, fede apurrekoa... zergatik dudatu duk? Matai 14, 31 = Zergatik asi zera zalantzan siniste urridun ori? Besterik gertatzen abeslariak goraihatzen dituan aiei. Iauna baitan fidatzen direnak, Sion'go oiana eta mendia bezala izanen dira. Eresia 125, 1 = Yaube'rengan ustea dutenak Sion-mendia bezelakoak dira. Orixe'k = Iaunagan entziten diranak, Sion-mendi bezelako.

11. Ustea aundi-luze. Ekiñerako gogoa seta txarrik gabe. Sismena gori-bizi. Iru oin eder oriek dituna aurrera irtengo. Bestela,

berriz, auxe gertatuko: anhitz direla deituak, baiña gutiak hautatuak. Matai 22, 14 = Deituak asko, autuak, ordea, gutxi bait-dira. Esan... esan, bai eta besoak antxumatu, Goikoa zirikatzea aña. Alako aiek ala egin zuten: egotz zezala handik behera bere burua. Matai 4, 6 = ialki zaitetz goitik beera. Txerrenak, oraingoan, nai zuenik ez iritxi eta zai-zai ibilirik, azkenean au egin gure Erosleari: ene sorbalden gañean egin zuten egur bekatoreak; han bere gaixtakeria edatu... Eresi 129, 3 = Goldariak sorbalda goldatu didate, ta beren ildoak luze egin. Orixe'k = goldelariak nere bizkarra goldatu dute ildo lezeak urratu dituzte.

Beti ozpiña? Gizonarentzat geiegi! Ba-da besterik. Ediren duzu eztia? ian ezazu, bada, neurritz, asko duzun bezain-bertze eta ez geiago, asegirik oka eztagizun, ahotik biur eztezazun. Itzurak 25, 16 = Eztia idoro al dezu? Doia ian; asez-gero okazta ez dezazun.

Urdazubiarrak egi aaztua dakarkigu gogora. Egia, bai aaztua bai izugarria ere! Auxe: «Iustizia, min da eta garratz...» Olako aitorpena entzun gabeak, gure egun auetan zenbait ote-dira? Entzun ondoren, entzundakorik bear ez dutenak are dirala esango nuke. Non-nai. Iparraldean eta egoaldean. Lurbiraren zatirik ttikienik bereziterik ez dago. Ezterrazula miserikordios dela Iainkoa, eta zeure bekatu guztiak barkatuko derauzkizula. Zeren, miserikordia eta iustizia urbil dagotza Iainkoari eta elkarri... Ikastuna 5, 6-7 = Ez esan «Aren errukia aundia da, ta nere ogen ugariak asketsiko ditu». Arengan, aserrea eta errukia urreka bait-dira.

Uste ero geiegiz'edo erori zan arako ua. Nola erori zinen, Luzifer? Nola erori zinen Artizarra, goizean-goiz... ilkitzen oi zinena? Isai 14, 12 = Nola erori zera ortzitik izar dirdiratsu, goiz-eme ori?

Erortzen direnak zenbatu ote-ditezke? Ai olakorik ba'litz! Eroen kontua infinitu da. Gogoetak idazti 1, 15 = Okerra ezin zuzendu eta utsa ezin zenbatu.

Bear litzakena ez egin; ez osatu; ez ondu; ez bete; ez burutu; ññori ez nai izan; ez egiztatu; ez garbittu; ez eman; ez ordaindu; ez eraiki; ez edertu; ez atotsi; ez onetsi... auxe bai amaitzen ez dan arloa!!! Susana, emazte saindu ark naiago zuen iende gaixto batzuen eskuetan erori, Iainkoaren miserikordiaren menean baiño. Daniyel 13, 23 = Obe zait, ogen egin gabe zuen eskuetan erortzea, Iaunaren begietan ogen egitea baiño.

Delako etxalaba zintzo, apal, xaloak, itzetan aitortu zuan auke-rakizuna lendik ikasia zuan, arean: Dabid bakaldunarengandik, noskiago. Errege Dabid'ek naiago zuen, iendeekin baiño Iainkoaren iharduki. Samuel en bigarrena 24, 14 = Au kezka gorria! Aundia da, ordea, Yaube'ren errukia, ta giza-eskuetan baiño Yaube'renetan erori nayago dut. Asmo au bera: Egun Itzak len idaztian 21, 13 = Au kezka gorria! Yaube'ren errukia aundia da, ordea; ta giza-eskue-tan baiño Arenetan erori nayago dut.

Onari ekitea, zuzenari eustea, egokia besarkatzea: bai ederra!! Egizue ongi, ahalez obra onetan enplega zaitetzte; eta orduan euzue Iauna baitan esperantza. Eresi 4, 6 = Opari zuzenak eskeiñi; eta, Yaube'rengan uste on ezazute. Orixe'k = Opari bidezkoak egizki-zute, Iainkoagan itxedon zazute.

12. Oldez eta biotzez ari danak ez uts-egingo. Ene seme, be-gira ezazu denbora. Ikastuna 4, 20 = Garaya yagon eta gaitzetik itzuri zaitetz. Orain, denbora aitzinean duzuiño, egizu ahal dagizuna... zuk ioan bear duzun leku hartan, arrazoin alegatzerik, eta ez-*iakintasuna* probetxatzerik (eztela) izanen. Gogoetak 9, 10 = Egin pozik, zure indarrez, ahal duzun guzia, *xeolera* bait-zoaz, eta ez da an egitekorik, ez asmorik, ez ezaguerarik, ezta iakiterik ere.

Aolku zuhur au azalpen ugari bearrekoa ez izan. Denbora du guiño, dagigun ongi. Paul Deunak Galatiarrei 6, 10 = Beraz, astia duguño, guziei on dagiegun. Oraindik ere Euskalerrian bizi-bizi dan esakuna: Egin zak on!, naiz ez iakin non. Gure egunak ez izan anhitz, urri baizik eta: Eman neratzun eguna urtetzat. Ezekiel 4, 6 = Egun bakoitza urte batentzat zenbatuko dizut.

Iainkotiarrek etsai gabe ez izan. Arerioak erruz: deitu zuen ene kontra denbora. Erosta 1, 15 = gudoste bat bildu da nere mutillak porrokatzeko. Gure-gureak diran zertxoak ez ditugu ainbeste. Egunak, alabaina, gureak dirala ezin esanik ez legoke. Urteak gureak. Aldia guretzat. Aro ta giroa guri begira! Denbora neuregana dezadanean... obra onak ere... iustuki... iuzgatuko baititut. Eresia 75, 3 = Garaya etorri orduko, zuzen eta bidez ebatziko dut. Orixe'k = Garaia erabakitzean, nik iritzia emango zuzenean.

Begi zorrotzak izatearen alderdi ona! Olakoek iritzi zuzena beren eskuetan izaten. Eta, gizon gaixto, odol-isurle, gerlati... eta en-

ganatiek, eztituzte bere egunak erdizkatuko. Eresi 55, 24 = odolkoiki maltzurak ozta elduko dira izango zuten biziaren erdiraño. Orixe'k = odolzale ta maltzurrek zuketen egunen erdirik ez dute ioko.

Halakoek, bere egunak erdizkatzeintuzte, biziaren erdiraño ez iritxi... Eta, pagatzaille gaixtoek egiten dutena, eskatuko dira (dute) epe eta luzamendu geiago. Ikastuna 29, 6 = yesandakoa biurtzeko garaiean epe bat eskatzen diote... Auzi-arazo au ikuttu ta salatzea aizu ba'nu, luzagarri ba'nuke, bizi naizen lurralde ontan. Garai bateko mezatan *aleluiak* zuten luzaketa baino areagoa. Bai, enetxo!! Eguzki-alde auetan, yesandakoa izan nai dunak izango izerdikizuna itsasoko urak aña. Itsasoan bertan, sakon-une zingotsuenak ia ementxe omen ditugu. Zingo barrentsu oriek baino kezka sakonagoak izaten zorrak biltzeko. Olakoetan sortzen diran bidegabekeriak, berri? Nola adirazi? Nork esan? Zelako itzez idatzi? Zorretan bizi diranek, emen beintzat, onako auxe pozik entzungo luteke... etzela izanen geiago denborarik. Yon i Ageria 10, 6 = Astirik geroanean ez dagoke.

13. Axular'en GERO eskuetan artzeko beta dedanean, esne-gañak otordurako nitunean bezin alai izaten naiz. Oroi zaitezi zeure laungoikoaz zeure gazte denboran, zahartzeko peneetara baiño lehen eta urbildu gabe hek, zeinngatik, datozinean, erranen baituzu, ez tira ene gogarako. Gogoetak 12, 1 = Gaztaroko egunetan, zure Egilleaz oroi zaitez: «Atsegiñik ez dut» esateko egun illunak eta urteak urbildu baño len. Goazin aurrera, ta onako au gure-gure egunetako gazteentzat'edo da: goiz ontzen diren fikoak desiratzen zituene animak. Mikai Igarle 7, 1 = ...ez eta ain opagarri zaidan goiz-pikorik ere. Egitan, noski: arrazoin da, traillaizen den laborariak berak lehenik bere fruituetarik dasta dezan. Timote'ri esku-titza, bigarrenetik 2, 6 = lur-lanean ari izanak zitua artu bear du aurrena. Ona gu gizonok lanean ari bearrekoak: zuek zerate... Iainkoaren laboraritasuna, Korintoarrei lenengoan 3, 9 = zuek... Iainkoaren alorra.

Berorik kiskalienean, izerdia mara-mara darigula, ta ai!: ene urrikalkisuna... ni egin naiz, udaren finean, bertzeren bil-ondoan, mahats ondar-mondarren billa dabillana bezala. Mikai Igarlea 7, 1 = Ene zori txarra!, udazkeneko uzta ondoren ta txirdil-biltze on-

doren maastia bezela gelditu bait-naiz; morkorik bat ere ez dut iateko. Gaztean bildu eztuzuna, nola edirenen duzu zahartzean? *Ikas-tuna 25, 5* = Gaztezarroan bildu ez duzuna, zaartzarroan nola didorokezu?

Igan garaietan alper izanaren zimikoa, zaharrago ta mikatzago? Agian!: begirautzue, lurra ta itsasoa: gaizki doa zuetzaz, zeren iauzi da deabrua zuetara kolera andian, iakinik, ezen, denbora guti duela. *Yon'i Ageria 12, 12* = Zuen zori txarra, berriz, legor-itsasoena! Aserre gorrian zuetara Txerren yetxi bait-da, asti gutxi dula iakiñik.

Adiña zerbeldu dalarik, iñori zer-eskeñirik ez! Ezer ez izana baino, gogo txarra geiago! Beste arako aiek oso zekendurik genitun: ...itsuak, mainguak, eriak eta hebaiñak ofrendatzen zerautzen (bait-zituzten). *Malaki Igarle 1, 13* = Ara! Au nekea!! Eta ostua, errena edo eria oparizat ekarri ta eskeintzen duzute. Okerrena, bérriz, zahartzean ere penitentzirik ez egitea: egunak berak du bere buruarekin egitekorik asko. *Matai 6, 34* = Egunari asko *zayo* eguneko dordoa.

14. Urte batetako aurra zen Saul, erregetu zutenean; eta, bi urtez izan errege. *Samuel'en idazti lena 13, 1* = Errege egin zutenean, Saul'ek... urte zitun, ta *Ixrrael'en* errege... urtez izan zan.

Olabide'ren itzulpena aztertzen ba'degu, arrikizun aundigirik ez degu aurkituko. Eta, i lenbizi, Axular'ek eta gazteiztarrak beren idazkera itturri banatatik eratxi izan digutela. Bigarren, idazle biak ain alderantzira dabilzala ikusiz, irakurleak arazoa garbi ezarri nai ba'luke, aspertzeko lana artuko dula!

Urteak eta adiña buruausteak sortzeko izaten da. Gure gorputz haur, arimaren kanpoko eta gaiñeko estalki haur, zahartzeaz igatzen eta desegiten bada ere, ordea barrena, arima, obetzen eta erraberritzen da. *Korintokoei bigarrena 4, 16* = argatik ez gera okiltzen; ostera ere, azaletik geran ori andegatzen ba'da, gure barnekoa egun oro berritzen diyoa.

Mozten danak berrizterik ez. Iñaustea eta moztea, ordez, ez izan orobat. Ez nazazula dei neure egunen erdian. *Eresi 102, 25* = Nere egunen erdian ez ni eraman. *Orixe'k* = Ez eraman ni nere egunen erdietan.

Eperrak, errun ez ditun arraultzak txitatzen ditu; alakoxea da ondasunak okerre bildu dituna; erdi-azi ditunean utzi bearko ditu (gure eper gaixoak azi nai dituan umetxo oiek) eta, azkenean ageri da aren ergelkeria. Yeremi Igarlea 17, 11 = Bizi izatea gure esku ba'gendu, eta erdi-ibilian arnasa idokitzea eska ba'geneza, eperraren antzeko giñake. Ergel eta ero. Errukarri. Burugabe. Soraio. Zenbatenaz eta ikusten baituzute zeuen azken-eguna urbiltzenago zaitzuela, hanbatenaz lasterrago abia. Ebertarrei eskutitza 10, 25 = Ez beza iñork bere batzarrea utzi... eguna batez ere urbiltzen dakusazute-ta.

Gizartean, nolabaiteko gizon eta emakumeak sailka. Irur bekatu edo bekatore-suerte gaitz-esteintut eta zaizkit bertze guztien gañetik itsusi: probe urguillua, aberats gezurtia eta zahar ero zentzugabea edo zahar amurusa. Ikastuna 25, 3-4 = Iru giza-mota gorroto ditut, eta aien bizia oso iguingarri zait; lander arroputza; aberats gezurtia, ta sengabeko agure likitsa.

Bere likitskeriak eta lizuntasunak zituen oñetara, eta bere finaz ere etzen oroitu. Erosta 1, 9 = Gonatan du bere gerenbidea; ta bere amaiaz ez da oroitu. Ai! gure urrikalkizunak! galdu gara, egin du gureak; zeren akabatu hurran da eguna... eta itzala ere luzatua go da arratsaldean. Yeremi 6, 4 = Gure zoritxarra! Eguna beeruntz doa, arratsaldeko itzalak luzatu egin dira. Guztia aratz dedinerako geron buruak ongi ikuzi. Parabisurako denak, eztuela bear bekatu-rik. Epesokoei eskutitza 5, 27 = iñolako orban, zimur edo olakotsurik gabe.

15. Ogenak beti astandu! Eta ogenik naiz orbanik geranik ez uste izan. Aundiak eta ttikiak, orobat errudun. Ta, eztio bekatoreari, bekatutik ilkitzen den egunetik harat bere bekatuak kalterik eginen. Ezekiel 33, 12 = ...eta ez 13. Olabide'rena irartzetakoan begi-motel'edo ibili giñan, zatitxo ori ez bait-da ageri iñon.

Gaia aldatuz, estu ibiltzeaz onik izan ez dezaketenak izango. Egizue otoitz, eztadilla zuen ihesa gerta neguan edo larunbatean. Matai 24, 20 = Otoi egizute, beraz, zuen igesa neguan edo larunbatean gerta ez dedin.

Negu bustian, ibili ttikia. Azpia irristabera dalarik, sarri irristalari gertatzen bait-gera. Ta, ezta nehor eriotzean Iainkoaz oroitzen.

Eresi 6, 6 = Zutzaz oroitzetik ez il ezkerok. Orixe'k = il ezkerok ez baitago Zutaz oroitzetik.

Egilleaz ez oroitze au zabalduetia izan: Zeure bertutearen multzutasunean, gezur eginen derautzue zeure etsaiek. Eresi, 66, 3 = etsaiek Zure indar-arren itz-leuneko azaltzen zatzkizu. Orixe'k = Zure indarraren aundiz etsaiek dagizute zurikeri.

Urgoitsueneke ere obe luteke Ari menpeko agertzea. Iustu da eta arrazoin, Iainkoari errendaturik egoitea, eta gizonak Iainkoaren berdin bere burua ez edukitzea. Makabaitar bigarren idazti 9, 12 = Bidezkoa da Iainkoari gu makurtzea; eta, ilbearrak geranez-gero, gure burua lotsagabez Arekin berdindu nai ez izatea.

Eguratseko zabaldietan ibili izandako norbait arto agertu zitzaigun AN Iainkorik aurkittu ez omen zulako. Esan ero ori bereztat bakarrik izkutu isillean zokoratu izan ba'tzuen... Bañan, ahozabal ibili bear, bala-bala erausi zoroan. Onako onen antzekoa'edo ote-genduan? Gaixto hura otoitzez zegokan Iainkoari; baiña, alferrik, etzuen barkamendu erdiesteko perilik. Makabaitar bigarrenen 9, 13 = Bañan, erruki izango ez zitzaion Iainari gizatar ark otoitz zegion.

Erruki-atea beste iñork ez digu isten. Gerok bakarrik estu-estu giltzatzen. Ondoren igesian itzuli! Dagigun ihes, bihur gaitzein gibela; eztaidikegu nai dugunik; zeren Iainkoa bere alde dute iende hauk. Irtenera 14, 25 = Iges egigun ixraeldarrendandik, Yaube auen alde ta aigitoarren aurka burrukatzen da-ta.

Arnasa itto nai digutenean gure larria aundi. Zer da haur, Ioab kapitain famatua? Zer egin gogo duzu? Akabatu nai ote-gaituzu? Asko egin duzu; garaitia ba'duzu; uzkuzu bizia. Samuel'en bigarren idazti 2, 26 = Ezpata sarraskitan ari izango ote-da beti? Ez al-dakizu azkena garratza izango dala? Noiz arte egongo zera zure gizonen senideen atzetik biurtzeko esateke? Yoab'ek erantzun: Promes ematen deratzut, ezen, baldin goizean mintzatu bazina, iendea barraiatuko zela. Samuel bigarrena 2, 27 = Ala Yaube! Mintzatu ez ba'ziña, erria ez zan bere senideak esestetik atzera biurtuko.

Gure Egillearenak, giza-arauaz adirazi litezke gutxi edo asko. Onela: zertara etorri zerate orain enegana, lehen gaitzetsia... zuengandik egotzia... batengana. Asiera 26, 27 = Zer dala-ta zatozkidate gorroto ta asagotu nauzutenok? Zoazte hortik, etzaituet ezagu-

tzen. Matai 25, 12 = ziñez dasaizuet: ez zaitut ezagutzen. Txatal au, onela genduke euskerago: ziñez dasaitzuet, ez dakit nortzu zeraten.

Ordurako atea ere itsia izan! Ertsi da atea; ezta idikitzerik; berandu duzue. Matai 25, 10 = ta atea itxi egin zan. Adiskideak non? Urgazlerik bai ote? Zoazte hetara, eta hek lagun bekizkitzue. Itzaldiak idaztian 32, 38 = Yaiki, ta lagun bekizkizue; malgatu zaitzate.

Nahi zendutenik ez iristeaz, auxe gertatuko: irri... nik ere eginen dut zuetzaz. Itzurak 1, 26 = nik ere, zuen ondamenaz barre egingo dut. Izan ere, zer erein zenduten? Gizonak zer ere ereiten baitu, hura biltzen ere du. Galatiarrei 6, 7 = Ereiten danetik bildu bear. Ote-da elorri-arantzetarik mahats, edo sapar-laharretarik fiko biltzen duenik? Matai 7, 16 = Elorritik maatsak, edo laparretik pikoak biltzen ote-dira?

16. Ariketa obe ta onuratsugorik ba-da. Etekin emankor eta ederragorik eskura liteke. Bezua opagarriagorik nahi izan genezake. Urak iraungitzen du sua eta erresuminak egiten deraue bekatuei kontra. Ikastuna 3, 28 = Urak su bizia itzaltzen ta ukarrak ogena ezabatzen du. Esku-zabalen ona! Doatsu dira miserikordiosak, zeren hek erdietsiko dute miserikordia. Matai 5, 7 = Errukitsuen zori ona, errukia iritsiko dute-ta. Doatsu da bearraren eta probearen gainean enplegatzen dena... egun gaitzean... begiratuko du Iainkoak. Eresti 41, 2 = Landerrak eta aulak gogoan dituna, zoriontsu! Yau-be'k ua egun beltzean gaizkatuko du. Orixe'k = Bai doatsu bearsuez eta landerraz axola dana, egun gaiztoan onez aterako du Iaunak.

Gordezazu erremusina probearen golkoan; eta, hark eginen dio Iainkoari othoitz. Ikastuna 29, 15 = Ukar egitekoa, zurean berezita eukazu, ta gaitz guzietatik yareingo zaitu. Alabaina!!... Dudan guztia probei eman badiazet ere, eta neure burua erretzera utz badezat ere, etzaizkit hek guztiak deus baliatuko, baldin karitaterik ezpadut. Korintoarrei len eskutitza 13, 3 = Daukadan guzia landerrei banatu ta nere soña erretzeko emanarren maitasunik ez ba'nu, ezertarako ez litzaidake.

Erremusinak anhitz ontasun... Daniyel 4, 24 = Zure bidegabekeriak landerrentzako errukiz ordaindu itzazu. Eta Matai deuna-

renetik lentxeago artua: Errukitsuen zoriona... Probeari emaiten dioenak, Iainkoari emaiten dio. Itzurak 19, 17 = Landerra erruki danak, Yaube'ri mallegua dagio.

Beldurtiek, ordea, ziskuari muturra estu lotzen beti. Zoazte hortik... eztugu guretzat ere sobera. Matai 25, 7 = Obe dezute saltzalleengana yoan ta zerontzat erosi; guretzat eta zuentzat gutxi izan ez dedin. Aolku zuhur au ez izaten gogoan: Bearrari emaillea, ezta bearrean iarriko; emaille eztena, azkenean bear izanen da. Itzurak 28, 27 = Landerrari damaiona, ez da urrittuko; bañan, ari begiak isten dizkiona, biraoz beteko da.

Batzuek bere onak partitzen eta emaiten dituzte, eta... beti dira aberats; eta... beste batzuek... besterenak ebasten dituzte... eta, beti dira errumes, noharroin eta on-bear Itzurak 11, 24 = ...Batzu, esku-zabalez emanda ere, aberasten dira; bestetsu, ostera, zeken-zekenegiz, txiro biurtzen.

Esanean-esanean, euskaldun geienok auxe degun goguan: pro-bia zeruko loria, aberatsa inpernuko laratza. Bihika ereiten zuten, eta eskumenka biltzen. Eresi 126, 6 = Ioatean, negarrez zioazan, ereiteko azia eramanez; itzultzean, lekaioz datoz, beren balak eka-rriz. Orixe'k = Arontzekoan an zoazin negarrez, ereiteko gari-zorroa eramanez. Pozik etorriko dira onontzekoan, gari-armena eskuan.

Aberasturik ote? Beintzat, arako ua etzan aberats, oraingoak dirudun eta zillardun diran antzera. Bestitzen zela ongi, eta oturun-tzatzen obeki. Luka 16, 19 = Liñaberazko iazkiak eta egun oro orrits ederrak izan oi zituna.

17. Orrek ere, berea besterik ez gogoan. Guztiok bait-gera aaztukorrak. Eriotzera baño lehen egiozu ongi zeure adiskideari, eta duzun indarraren arauaz heda iazozu zeure eskua probeari. Ikastuna 14, 13 = On egiozu il baño len adiskideari, ta, al duzunez, aren alde eskua zabaldu.

18. Ondorenaren ondorena ondorenik gabe. Zenbait aldiz ote? Orixe! Amaikatxoan ikusi izan deguna. Zakai'k erdia bederen ba-zemaian. Ez bide zan oraingo berein bezela egazkiñez-egazkin ortik zear ibiltzen. Onako iri au ikerri. Aruntzagoko ibarrak ikusi. Eta, irakurri bai irakurri, egunkarietan gosea aiphatuz idazten dana. Oro

bat, bere iaioerrian ikurrin txoak banatuz eskean dabiltzan neskañoiei zerbat eman. Ortik aurrera, zer?

Neure onen erdiak emaiten derautzet probei; eta, baldin nehor enganatu badut, biburtzen dut laur doble. Luka deunarenetik 19, 8 = Ditudanen erdia landerrei damaiet, eta norbaiti bidegabe zerbat kendu izan ba'diot, alakoari lau alako biurtzen diot.

19. Zakai'ren esana, ondoren ederrekoa agian! Ua norbaiten beldur zan, izan. *Izanen zara zeure Iainkoaren beldur; eta eginen duzu Haren izenez iuramentu.* Itzaldiak idaztikoa 6, 13 = Izan zure Iainko Yaube'ren beldur; ...Aren izenez zin egizu.

Gezurtiak zin-egitia bai maite! Gezurkien mintzo zuriari iarraitzen diotenak, eguzkipean asko eta asko. Onako auxe ere bai: berberak esana iñork sinistuko ez diola uste duna. Oituraren zabaldua. Bazterrik izkutuenetaraño edatua, zori txar-txarrez. Goi-Goikoaren beldurrik ez dutenen artean ugarienik.

Nik diotzuet zuei, extagizuela neholatan ere iuramenturik. Matai 5, 34 = Nik, berriz, dasaizuet: iñola ere ez zin egin.

Guztien gañetik gomendatzen deratzuet, neure anaia maiteak, extagizuen, batere, iuramenturik, ez zeruaz, ez lurraraz, eta ez bertzez; baiña biz zuen izkuntza, solasa eta mintzaia, Ez, ez; Bai, bai. Yakue deunaren eskutitzetik 5 12 = Baitik bat, senideok, ziñik ez egin, ez ortziagatik, ez lurragatik, ez beste ezergatik ere. Bai, bai; Ez, ez; izan bedi zuen esakera, ebazkizunik ez dezazuten.

Izan Ari beldur. Ua goretsi!! Orixe zanak aitortu ziguna: «Aurrenik Iaungoikoa, nik, al bait, aitor ta eder nai nuke, egun ainbeste uka ta iraintzen duten Iainkoa». *Laudatuak izanen dira Iainkoaz, iuramentu egiten dutenak.* Eresi 63, 12 = Iainkoarekin, eta Arengatik zin-egiten duten guziak illarrainduko dira. Orixe'k 62-garren eresian: Errege, berriz, Iainkoagan poztuko da, aren gain zin dagina gallenduko da.

Gizonek, berak baiño aundiagoaz egiten dute iuramentu; eta beken diferentzia guztien fina eta akabatzea, iuramentua da. Ebertarrentzako eskutitzean 6, 16 = Gizonek aundiago zaien bat edo batengatik zin egiten dute, ta ziña da aientzat eztabaidan esandakoen erabateko sendogarria.

Iuramentuak... bear ditu irur gauza: egia, premia eta zuzena. Jeremi igarleak 4, 2 = «Ala Yaube bizia» esanez zure ziñak egiztizu egiz, bidez ta zuzentasunez.

Asmo ontako zan, agian, Kepa Deuna ziotsalarik: *Ezteraukizidazu sekulan Zuk Niri oinak garbituko.* Yon deunarenetik 13, 8 = Bein ere ez dizkidazu oñak garbituko.

Itz eta berriketa gutxi eta aiek onak, euskaldunok guk maite. Orixe!! Itz-iaro ez dana guk aintzakotzat artzen. Ayurri al degu, ala onoiemen? Geronez deguna, ala ikasia? Ona:

Iuramentu anbitz egiteak, beti burboz mintzatzeak lazteintu buruko illeak eta prestuek, halakorik ez entzuteagatik, beharriak ersteintuzte... Ikastuna 27, 14 = Araokarien erausiak illeak zutik yaikirazten ditu, ta aien lipiztak belarria itxirazten du.

Izkera bezela biotza. Izkuntza txukun, barnea arrai. Mintzoa likits, gogoia likitsago. Gurean izketa nabarmenak sartu dira. Sartu dizkigute idatziz egokiago ariko ote-nitzake? Beintzat len etziran oiua Euskalerrri guztian barra-barra dabilta. Gaztetan iaio terria utzi bear; eta, gero urteen buruan beiñolako txoko maiteak ikustera bi aldiz itzuli izan naiz... olakoetan igarri oi da aldaketak aundiak ala ttikiak izan diran. Aritzaren azpian dagoanak, orriaren erortzea banaka-banaka dakus. Erortze ori urrutikoak bestela oartzen... adar guztiak zotz-uts kimatu diranean, ua aritz-ondoaren errukia!! Auxe ere gogoratu izan zait: Euskalerrriak ukatuenik ez du: mintzotik igarri zaio.

Beste arek bezelaxe: *Eztuzu zer ukaturik; zu betarik zara, Iesu Kristo'ren dizipuluetarik zara; zure mintzaian ezagun zara.* Matai 26, 73 = I ere aietakoa aiz; ire mintzoerak salatzen au-ta.

Ifernuan daudenak... *beti daude arneguz, iuramentuz, burboz ta maradizinoz.* Yon'i Agerian 16, 11 = Min ta zaurien eragitez biraokatzen. Ortara oitu? Ez!! *Begirautzu extadilla zure ahoa iuramentura usat... beatz-topa eta peril da hartan.* Ikastuna 23, 8 = Zure aoan ez bedi zin egiteko oikuntza. *Iuramentu anbitz egiten duena, beteko da bekatuz.* Ikastuna 23, 10 = Askotan zin egiten duna, ogenez beteko da.

20. Bakoitzak geron barruko giza-saldaren berri ba'gendu, guxtigotan asarretuko giñake! *Extadilla iguzkia eror zuen aserretasu-*

naren gaiñean. Paul deunak Epeso'koei 4, 26 = Oraindik aserre zerala, ez bedi eguzkia etzan. Ez-garaiko aserreak osasun makaletik etortzen ote? Ba-da esakuna. Eibar'en: gaixuandako ollo-saldia. Urdazubi'n, artean, ez ote-zan amarretakoa artzeko oiturik? Bi gaitzerizko eta bi onerizte eta amorio. Bata berezko. Beste aukerakizun. Erosle Maiteak irabazten diguna, noski. *Aita: baldin posible bada, iragan bedi enegandik kaliza hori*. Matai 26, 39 = Ene Aita!, ontzi au, al ba'da Niregana gabe bioa.

«Aukera» itz au, bai zabala!! Aukeratzeak lanak ematen. Gogo ona danean, alabañan, aukerakizunak iñor ez okertzen. *Ah, galatar zentzugabeak: nork erotu ta lilluratu zaituzte, expaituzue orain, lehen bezala, egia obeditzen eta sinesten?* Paul deunak Galatiarrentzako eskutitzean 3, 1 = Galatiar burugabeak! Nork lilluratu zaituz (egiarri ez menderatzeko)?

Gure aul-izatea ez bedi ogenerako. *Aserre zaitetze, eta eztagizuela bekaturik*. Eresietan 4, 5 = Ikara zaitetze; eta, ogenik ez egin. Orixe'k = Ikara zaitetze ta ez obenik egin. *Unek* (aserreak)... *egunak laburtzeintu, eta, muga baño lehen, illeak ere urdintzeintu*. Ikastunarena 30, 24 = Espa ta aserreak bizia laburtzen dute, ta kezkek zaartzarora goizegi dakar.

Formosa ontan ere gutxi-asko bai. Txina'n giñala bizi-laburtze ori maiz ikusi gendun. Berrogei urte baño len gizasemeak erabat zaartuta. Lanerako almenik gabe. Seme-alabaei aolkuak emateko ere erarik gabe. Goganbeartuak. Artu bai artu arnasa. Bizirik gabekoa, ordea.

22. Aserre zakarra ezertarako ez. Su bero eta zakarraren gañetik, esneak ere iges egiten du... Sugar kiskaliak, orixe kiskali!! *Erreputa emeak... austen du mendekatzeko desira desordenatua; baiña solas gogorrek, pizten du kolera*. Itzurretan 15, 1 = Erantzun txeratsuak, aserrea ibitzen du; yardespen zakarrak, ordea, sumiña pizten.

Are: mihiaren eskuan daude eriotzea eta bixitzea. Itzurretan 18, 21 = Eriotza eta bizia, mingañaren mende daude. Mihia emetzeko eta itzez dagizkigun okerren berdintzeko, *emozu zure etsaiari, gose danean, iatera; eta egarri danean, edatera*. *Zeren, halatan, bildukoituzu ikatz biziak haren buruaren gaiñean*. Erromarrei eskuti-

tza 12, 20 = Zure etsaiari gose ba'da, yaten emayozu; egarri ba'da, edaten emayozu. Orrela egiñaz, illinti biziak aren burugañean metatuko dituzu.

23. Leenagoko apaizak bein oso aolku ederra eman zuan. Aolku zuurraren berri ez dakinik ez bide-da. Ona: emaztekoa erantzun bizkorrekoa izan, eta itzak aotik igeiten ari. Bai? Entzuidazu: berantzake, goiz-goizean gosaldtu, eta berialaxe aoa urez bete, irentsi gabe, gero!! Ezpañak itxi, urak aotik iges egin ez dezaizun.

Aolkua ederki asmatua ote? Emazteki arek aolkuarena zintzo beterik, garbaikizunik ez. Eztezazula liskarrean ahotik itza fite atera. Itzurretan 25, 8 = Auzitara ez laisterregi ioan.

24. Irabazirako begiak argi ba'genitu!! Etsaiengandik ere onura-ekarle giñake! Eztuzu nai, neure Aitak eman derautan Kaliza edan dezadan? Yon 18, 11 = Aitak eman didan ontzia ez al dut edango?

Baita: Utzazu maradika nazan, Iaunaren manuaren arauaz. Samuel'en bigarrena 16, 11 = Utzazute niri birao egiten; Yaube'k agindu dio-ta.

Ba-degu arduradun. Ona oso. Ta, maite gaitu. Gure zintzo-izateari dagokian baño askozaz geiago maite bait-gaitu. Aitarik onenak bere semeak bezelaxe eta are! Iaunak eman, Iaunak edeki; Iaunak plazer zuan bezala egin da; biz, bada, Iaunaren izena benedikatua. Yob 1, 21 = Yaube'k emanda, Yaube'k kendu. Yaube'ren izena onetsia bedi!

Gorrotorik aundina digutenek berek, gerok nai ez ba'degu gaitzik ez guri egingo. Etzenduen ene gaiñean lekurik eta ez boteririk izanen, baldin eman ezpalitzaitzu han goitik. Yon 19, 11 = Nere aurka eskurik ez zenduke bat ere, goitik emanda ez ba'zenu. Agintea goitik izan eta eskuan dutena erabiltzen iakin ez. Alako gaiztagiñak errukarri! Aita, barkaiazezu; eztakite zer ari diren. Luka deunarena 23, 34 = Aita!, asketsiezu; zer dagiten ere ez bait-dakite.

26. Ez entzunarena egiten dakinaren buru ona!! Ez-aditu-iduri egin zuen. Samuel'en lena 20, 27 = Bera, berriz, gor bezela zegon.

Agirian dago: geron bizkarretik dioten iakin-gale oi gera. Ge-

ron izena ez dezatela beztu. Bizi geraño ez gaitzatela larrutu. Izen ona aberastasunik ederrena. Eta, bai! izenari eusten leiatzen geral!

27. Anai izateak indarrrik ba'lu, lipiztarik ez litzake. Senide gerala aaztu egiten zaigu. Gorputz bat gara Iesu Kristo baitan; eta bata bertzearen miembro eta parte. Korintokoei lena 12, 27 = Kisto'ren soña zerate, ta zuetako bakoitza Aren atal bat.

28. Txina'n esan au dute: Agintariaren barru-zadorrak, aintzira antzo, ala-ontziak aren barnean ibiltzeko aña bear lukete. Zimurrak bakarrik ditugu maite-indarrrik gabe. Adiskidearen onestez zer irabazi, zer esker... uste duzue izanen duzuela... iende gaixtoek ere, egiten dute hori. Matai 5, 46 = Alabaña, maite zaituztenek maite ba'dituzute; zein sari dukezute? Zergariek berek ez ote-dute ori egiten?

Etsaiak onetsi bear dituzute. Matai 5, 44 = Zuen etsayak maite itzazute.

Ongiaz gaizkia garaitu bear da. Erromarrei eskutitza 12, 21 = Onaz... gaitzaren garaile izan zaitez.

Nai duenak berra nai duena, nik erraiten deratzuet zuei, onets ditzatzutela zuen etsaiak. Matai 5, 44 = Nik, berriz, dasaizuet: zuen etsayak maite itzazute.

Agindu biguñagorik asma ote-zezaiguken Iainkoak? Elkar onets dezazuela, Yon deunak, 15, 12 = Elkar maite ezazute. Hunetan izanen zerate seiñale..., eneak eta ene eskolan eta konpañian aziak eta ikasiak zeratela. Yon 13, 35 = Ortan ezagungo zaituzte guziek, nere ikasle zeratela: zuek elkar maite izatean.

Txoil irakatsi zaarra ote? Ez. Irakatsi betikoa, arean! Iauna, ba-dakizu zure eta gure aita prestua il dela, eta il ere ongi eta sainduki; bizi bezela il ere. Iltzerakoan, zure galdegin zuen, eta atsberherapen andi bat eginik, erran zuen: «Non da Iosep, ene seme maite hura? Errozue haren ikus-min andi batekin iltzen naizela, eta neure benedizioea ba-diodala. Errozue, halaber, orainokoan seme onak bezala beti ene borondatea egin duela, eta orai ere egin bear duela; eta, ene borondatea, ene azken-adioa eta otoitza dela, eztadin oroit zuek egin zinioten bide-gabeaz; baiña nai deratzuen barkatu, eta, holakorik iragan ezpaillitz bezala, anaitasun on bat eduki eta era-

kutsi. Haur gomendatzen diodala, eta ez bertzerik; haur dala ene azken-adioa, eta hark ene amoreakgatik egin bear duena. Asiera idaztian 50, 16-17 = Zure aitak agindu au il baño len egin zigun: Yose'ri esayozute: Arren, ba, asketsiguzu ogen au, zure aitaren Yainkoaren morroyei.

29. Apena eskuan ederkiena nork erabiliko? (Yaube'k) berak artzen du bere gaiñera mendekatzea eta iustizia egitea. Itzaldietan 32, 35 = Niri dagokit apena artzea. Baita Erromarrei eskutitzean ere 12, 19 = Nere gain apena, neuk ordaindu bear. Etsaiak sailka eta multzoan diranean orobat. Inguratu ninduten etsaiek erleek bezala. Eresietan 118, 12 = Erleek bezela ira-biran zebilzkidan. Orixe'k 117, 12 = Erleek antzo inguratu ninduten.

30. Urkoaren iraiñei piper egin. Anaiaren okerrak era bat aantzi. Biotzez baztertu oroimenean ildorik urra ez dezaten. Oroimena eta biotza ez bide dabilta beti zidor berean binaka elkarrekin. Baldin barkatzen baderaukagu guk ere etasaiari, barkatuko deraukula hark ere guri, baiña ez bertzela. Matai 6, 14-15 = Alabaña, gizoneti beren zorrak askesten ba'dizkiezute, zuen Aitagoikoak ere, zuen ogenak asketsiko dizkizue: gizoneti askesten ez ba'dizkiezute, ostera, zuen Aitak ere ez dizkizue ogenak asketsiko...

Au idazten ari naizen ontan, iadanik GIZA-ESKUBIDEAK aintzakotzat artuak ditugu. Gizonok, len baño ia anaiago gera. Aitorpen eder ori noiz mamituko? Itz-eder-zale aundiak gera. Olako esanak entzutean poztu egiten gu. Bait-dirudi askoren asmoa orixe bakarrik dala. Gizadiaren belarriak limurtu!... Bere etsaiari barkatu nai ezteraukanak, eztu edirenen bere bear-orduan arartekorik. Ikastuna 28, 4 = Bere ideko gizonaz ez da erruki, ta errukia eskatzen dio bere ogenentzat.

Miserikordia gabeko iustizia egin bear zaika, miserikordiarik egiten eztuenari. Yakue'ren eskutitzean 2, 13 = Erruki ez danarentzat, epaya erruki gabe. Ta, Iauna: barka iatzagutzu geure zorrak, guk guregana zordun direnei barkatzen derauztegun bezala. Matai 6, 12 = ta asketsi gure zorrak, gure zordunei gerok ere askesten bait-dizkiegu. Guztirako ere, etorkizunari begi aratzez so-egin. Oroit zaitezi zeure azke-fineko egitekoez... eta, utzkitzu etsaigoak. Ikastunarena 28, 6 = Azagaz oroi zaite eta aserrea utzazu.

31. Gizon erdi-azia estu ibiltzen dan zelaira garamaz orain Axular'ek. Geron ariurrietara. Odolean sortzen zaigun beroa neurtu al ba'geneza!!!... Zenbaiterañokoa dan iakiñez, itzalgarriak zuzenago aukeratuko genituzke.

Beti ez itsu ibili. Norantz abitu iakin gabe. Asitakoak txar iduritzen zaizkigunean, bereala beste batzuetara io guraz.

Basa-asto amurusa bezala, begiak itsuturik, ihiztarien artetik iragaiten da; edozein periletan sartzen da. Yeremi 2, 24 = ...etzean oitutako basastoak, giriñak eraginda, giriaren usna aizean artzen du-nean doa; nork eragotziko dio aren irrikia betetzen? Billa lebizkio-ken guziek ez dute neke bearrik izango.

Nor indartsu? Nor buru oneko? Asko eta erruz ikasiak ere argi ote? Erorikorik gogoan ez dutenek ere iraungo ote azkeneraño? Eztemozula emazteari zeure duzun eskua eta boterea, nai ezpaduzu zeure burua ahalketan ikusi. Ikastunarena 9, 2 = Zure biotza ez emazteari zabaldu, zutzaz nagusitu liteken alakoan.

32. Aundiak amildu izan dira. Eiztari azkarrak itsutu. Garbiak simaur-maitale biurtu. Gurbillak likistu. Sartu zan Absalon, mundu guztiak zekusala, bere aitaren amoranteetara. Samuel'en bigarrena 16, 22 = Etxe-gañean, aren («Ixrael'en) begietan bere aitaren oaideetara sartu zan (Absalom).

33. Ondoren, gure erospenerako egoki ziranak lanik gabe ezin burutu. Adiñik ederrenetako eze eztia erabat txirtxillatua. Eta, Salbatzalleak... Ierusalem'go alabei erran zerauena, Luka deunak 23, 31 = Egur ezean au yazo ezkeru, igarrean zer yazoko ote-da?

Eztemozula konturik... zeren, eztia darion beraska bezala dira aren ezpañak, eta olio bañio legunago haren lepoa; ordea, ondorea... min eta gozo-gabe. Itzurretan 5, 3-4 = Besteren emazteari, ezpañetatik eztia dario: aren ahoa guriña bañio legunagoa. Ondorena, berriz, ixena bezin garratz.

Atsegindasunaren fina eta ondorea, atsekabea. Itzurretan 14, 13 = Barrealdiaren ere, biotzak miña du; eta, alaialdiaren amaia negarra da.

34. Isilka eta ostuka ibiltzen gera. Iñork emanari eskerrik ez. Gerok eskuratzen deguna, uaxe biotza betetzen duna. Ur eba-

tsiak, eztiago eta gozoago dira. Itzurretan 9, 17 = Ostutako ura goxoa da. Eibar'en onela esango ote-luteke? = Lelengo lapurretako mosua onena.

Negarrak ere izaten!! Aita gaixtoaz errenkuratzen dira semeak, zeren hura dela kausa baitira desohorezko. Ikastuna 41, 9 = Aita gaiztoaren semeak aren aurka oñon dabilta, arengantik gerenduta daudelako.

35. Beti etzanda egoteko gogorik ez dutenak ere izaten. Orixe!! Iakin nuenean, ezin nengokeiela erori gabe, Iainkoak edukitzen ezpaninduen, eta hunen iakitea ere Iainkoaren donua zela, ioan nintzen berehala edireitera eta egin nioen otoitz. Yakintza 8, 21 = Baña, Iainkoaren emariz baizik ezin garbi izan neintekela iakiñik, —emari au norengandik datorren ezagutzea, berriz, iakintzari dagokio— Iainkoarengana iota biotz-biotzetik esan nion...

36. Begi aula ere beti gose. Emazteari desiratzeko eta desira hartan atsegin artzeko kontuan behatzen diotenak, egin dute bere gogoan eta biotzean bekatu. Matai 5, 28 = Emakumea irritsez iñork begira dunekoxe, bere biotzean arekiko izorkeri egin du.

38. Sugeari azkar iges egiten diogu. Geron buruaren ondamentirakoei guk ez ainbeste beldur izaten. Utzi bearreko solasak eta artu-emanak. Hierusalem: zure aizpa Sodoma'ren Bekatua eta galgarria, izan zan urguillutasuna, aseá eta alferkeria. Ezekiel 16, 49 = Arrokeria, ogia ugari, arena eta aren alabaen alperkeria txit aundia... orra: zure aizpa Sodoma eta aren alabaen itxespidea zer izan ziran.

39. Zer fruitu, zer irabazi eta plazer izan zenduten orduan, orai ahalkez ere bururik ere ezin altxatuz zaudeten bekatu hetan? Erromarrei eskutitza, 6, 21 = Zer onik ateratzen zenduten orduan, orain lotsarazten zaituztenetatik? Aragiaren plazerak beti dira plazer goseak. Itzurretan 30, 16 = Bein ere «aski» ez dion sua.

41. Geron begi auek ere beti erorikora garamazkite. Eztiozozula beha emazte arin, airatu, leiariari... haren sareetan erortzeko periletan iarriko zera. Ikastuna 9, 3 = Iñongo ematxarregana ez ioan, aren sarean eror ez zaitezentzat. Ba-da euskeraz esana: *aben-*

duko eguzki txuriarekin eta ostatuko neskatxa ederrarekin ez piatu.
Une laburrekoak izan!

42. Solas gaiztoek galtzen dituzte aztura onak. Korintokoen-
tzat lena 15, 33 = Erausi txarrez ekandu onak gorbizten dira.
Emazteekin ibiltzea eta kalterik ez errezibitzea, suan erre gabe egoi-
tea bezala da. Itzurretan 6, 27-28 = Nork ote-darama altzoan sua,
soñekoak erretzen ez zazkiola? Illinti bizien gañez, iñor ibili al-da...
20 = orrela da, beraz, besteren emaztearekin dabillena. Ihes egizue
emazteetatik, aragiaren bekatutik!! Korintokoei lena 6, 18 = Izor-
keritik iges egizute!

Bere arauaz, Iainkoaz bezela munduaz ere, barrenekoaz bezala
kanpokoaz ere, egin bear da kontu. Erromarrei 12, 17-18 = ...gi-
zon guzien aurrean on egiñaz. Al ba'da, guziekin onekoan bizi iza-
teko... Eskuei zuria gal dakidieken beldur gabe esku-lana maite! Bi-
llatu zituen illea eta linoa; eta, berak bere eskuz landu eta obratu
zituen. Itzurretan 31, 13 = Artille eta liñoa inguratuta, bere esku-
-antzez lanean ari da. Urre fiñez kanpotik eta barrendik urreztatua
zan. Irtenera idaztian 25, 11 = Urre utsez estal ezazu barne ta
azaletik.

43. Idazleak ia gogorik gabe ikuttu bear gai asko. Neronek,
auxe det iguin. Edariaz ari nadin ein estua etorri zaidala. Ai! Ai!
Ene euskaldun anai maiteak!! Besteak beste dirala, gurean, maatsik
izaten ez dan lurraldeetan ainbeste, edaneko gazteak eta zaarrak!!!
Esango al det? Goierrian nintzan: Itsaso'n. Kizkitza ederraren oñe-
tan. Eta, bein, alderdi aietan amonatxoa agertu erretore iaunari
galdezka:

—Ai beza!! Goizean txikerditxo ere ez dan aña edaten ba'det
Betiko Aita ikusten det.

Eta, apaiz iaunak irri-erantzun ontaz iardetsi:

—Iru aldiz txikierditxo aña ez dana edan ezazu, eta Irutasun
Deuna ikusi al izango dezue!!

Entzun nuanean ez nintzan poztu. Ez gutxigorik ere. Arriga-
rriena auxe: bein ez ere dedala aaztu!! Ume giñan garai aietan ardoa
zan ordigarri bakarra. Orain, berriz, zer ez dizkigute asmatu? Entzun
dezagun: Beretzat gaixto dena, nola izanen da besterentzat on? Ika-
stuna 14, 5 = Beretzat on ez dana, norentzat daiteke on?

Eta beste au? Etzaitzela ordi..., arnoa den lekuan da aragiaren desira desordenatua. Paul deunak Epesokoei 5, 18 = Ardoz ez mozkortu; loikeria berekin du-ta.

44. Nor zer geran antz-ematen ez digutela? Elkarri *egun on!* esateko ere astirik ez degula bata besteari ukalondoka tartea ezin egiñez gabiltzanoi igarri ez beraz? Ez uste izan! Soñeko arropetan, irrian eta ibiltzean da ezagun, nolakoa eta zertako dan bat-bedera. Ikastuna 19, 26 = Gizonaren iazkerak, ortz-parre ta ibillerak nolakoa dan adirazten du.

Arean, bestela bear genduke izan. Zuhurrago! Dugunean zertaz gosea il eta larrua estal, asko esten dugu. Paul deunak Timote'ri, len eskuitza 6, 8 = Zer ian ta zer iantzi izan ezkerro, aski dugu.

45. Erorikoa astunegia danean ta zanpateko aundia, alakoxe gogo ustela sortzen.

Gaixtoak, bekatuen osinean barrena sartuz-gero..., eztu antsiarik. Itzurretan 18, 3 = Gaixtoa erortzean, esetsa ere arekin.

Gaixtoak, itsas irakitua bezala dira, eztute bakerik... Isai igarlearena 57, 20 = Gaiztagiñak, berriz, loi ta basa bere uñetan irabiotuz ezin yabaldtu dan itsaso zakarra bezelakoa dira. Gaixtoaren kontzientzia... orgaren... arroda bezala dira. Ikastuna 33, 5 = Ergelaren barnea gupil bat bezelakoa da. Gaixtoari beti dagoka beharrietan beldurtasunaren soñua... bakean danean ere, uste du gerlan dela. Yob 15, 21 = Aren belarrietan mintzo izugarriak; pake-erdian gaiztagiñak gañera.

Mamu ankerrak eskumatik. Iratxo beltzak ezkerretik. Eta, baldin entzuten ezpanauzue eta ene Manamendu guztiak kunplitzen ezpaituzue, iakizue... ikara aundi bat eginen zaitzuela. Apaizen idaztian 26, 17 = Nere aurpegia zuen aurka biurtuko dut, eta etsaiek porrokatu eta arerioak azpiratuko zaituzte; ta eseslerik gabe ere iges egingo duzute.

Ediren nazan guztiak, illen nau. Asiera Idaztian 4, 14 = Ta, ni idoro orduko, edonork ilko nau.

Okerra gertatu dala-ta, esalerik ez ote-izango? Eskapatzen zen, beti ere, bat..., berriaren ekartzeko. Yob 1, 15-16-17 = ni baka-rrik itzuri naiz, berria zuri ekartzera.

Izaten dira berri itsa iñork ekarri bearra ez dabekoak ere. Merezturik ditugu egiteko hauk guztiok... zeren, bekatu andia eginik, geure anaia saldurik baikaude... Anhitz otoitz eder egin zeraukun, asko baitziratekeien den biotzik gogorrenaren ere austeko eta baratzeko; baiña... ezkenduen entzun. Asiera Idaztian 42, 21 = Ogen-dun gera, noski, gure anaiari buruz arren zegigunean guk aren biotzeko axanpa ikusi, eta aditu ez geniolako. Atsekabe au, andik datorkigu.

Ez neratzuen nik orduan erran, begira zendutela, etzenegitela halako bekaturik anaia aurraren kontra?... Baiña ez nenduzuen entzun nai izatu... Bekatu hura... eldu zaiku gure gaiñera. Asiera Idaztian 42, 22 = Esan ere, ez al nesaizuen ordun: ez egin ogenik mutillari? Zuek, berriz, ez niñuzuten aditu. Ara, ba, orain, aren odola guri eskatu.

46. Atsekabeak bestelako kariz diranean, berein pozean igari. Esne-gañetan bezela. Itxaropen eta uste bikañez biotza zabal. Triste bezala bai, baiña beti alegera. Bigarrena Korintokei 6, 10 = Ustez goibel, ta beti pozik.

Zer nai den gerta dakiola, eztezake deusek ere iustua trista; baiña gaixtoak beteko dira gaixtakeriaz eta egitekoz. Itzurretan 12, 21 = Zintzoari ez zaio elkaitzik batetxo etortzen; ogenlariak, ostera, gaitzez beteta egoten dira.

Bake andia du kontzientzia onak, Iainkoaren Lege sainduari darraikanak. Eresia 119, 165 = Zure legeen zale diranek pake aundia dute. Orixe'k = Pake aundia Zure legea maite dutenentzat.

Haur da mundu hunetako gure loria... barren artan faltarik ez edireitea. Paul deunarena Korintokoei, bigarren eskutitza 1, 12 = Au da gure illarrainbidea, Iainkoarengandiko argi ta garbitasunez guziekin ta batez ere zuekin iardun oi dugula. Alakoak auxe ere uste zuzenez esan ahal izango: Zeiñek zuetarik eginen deraut niri bekatzuz erantzute? Yon 8, 46 = Zuetako nork ioko nau ogendaritzat?

Nola ezpaitzuen obenik bere oben-gabeak... esperantzatzen zuen. Daniyel 13, 35 = Aren biotzak ustea Iaunarengan bait-zun. Baldin gure kontzientziak akusatzen ezpagaitu, esperantza dugu... Iainkoa baitan. Yon deunaren lenengo eskutitza 3, 21 = Bañan,

ene maiteok, gure biotzak gaiztesten ez ba'gaitu, Iainkoagana beldurrik gabe io dezakegu: puxka au 1931-garreneko irarpenean dagona dezu (1958-garrenekoan ez itzuri egin zitzaidan).

Lo zauntzanean, etzera beldur izanen..., lo gozoa eginen duzu. Itzurretan 3, 24 = Etzandakoan, lo lasai-gozoa izango duzu.

47. Egizue laster, atrapa dezakezuen bezala. Korintokoei lena 9, 24 = Ua (saria) eskuratzeko bear aña antxintxi egizute. Urbil dagote Iainkoa, zinez eta egiaz gomendatzen eta fabore eskatzen zaizkion guztiei. Eresietan 145, 18 = Dei dagioten guzientzat, Yau-be urbil dago. Orixek 144-garrenean = Bertan dago Iauna deitzen dutenengandik.

Gure beldurrak, ume-ikarak eta aul-zalantzak izan! Emengo neke travaillu guztiak, geiago balira ere, eztira zeruko loriaren erdiesteko merezient. Erromarrei eskutitza 8, 18 = Oraingo nekeak, guban gero azalduko dan aintzaren aldean, ezer ez diralakoan nago-ta.

Aldi labur-motxean irabazi izugarriak. Izerdia urri. Ondare oparoa! Denbora gutiz bizi izan bazen ere, guti hartan egin zuen anhitz. Yakintza 4, 13 = Laister elduta, bide luze egin du.

Erori gabe ote? Ez! Eroritxoetatik iradu yaikiz, baizik! Den iustuena ere, egunean zazpitan erortzen da. Itzurretan 24, 16 = Zintzoa, izan ere, zazpitan erori dalarik, ostera yaikitzen da.

Onako au, ordea, ez da ezezti izan gaitetzentzat: Batek egin eta batek desegin, zer probetxu, travaillua baizen. Ikastuna 34, 23 = Batek daraiki; besteak diraul; zer iristen dute nekea izan ezik?

Erori-iaikiz ibiltzea, gibeleruntz so-egite utsa al degu? Lot'en emaztea... gibelat behatzeaz... gatz bihurtu zen. Asiera idaztian 19, 26 = Lot'en emaztea atzera begirata, gatzarri biurtu zan. Guretzat idatzia, arean! Oroit gaitezilla Lot'en emazteaz. Luka deunak 17 32 = Lot'en emazteaz oroi zaitzte.

Atzerazaleak etekin murriz-urri! Gibelat beha dagoela, golde nabarretan ari dena, ezta Zeruko erresumaren erdiesteko gai eta ez on. Luka deunak 9, 62 = Goldeari eskua ezarrita, atzeruntz begiratzen duna ez da Iainkoaren errirako gai. Obe zukeien egiazko bidea (iakin) gabe egon, iakinez-gero gibelat biurtu baino. Kepa deunaren bigarren eskutitza 2, 21 = Obe luteke orrelakoek zuzen-bidea len ez iakitea, iakin ondoren, emana izan zitzaien agindu gu-

renetik gibelatzea baño. Gaizkiago da... bigarren artan, lehenbizi-koan baño. Matai 12, 45 = arako gizonaren azken-aldia, lengoa baño latzagoa gertatzen da...

Ba-dakusazu sendatu zarela; begira, bada, berriz eritzetik, zerbait, are lehen baño gaizkiago, gerta eztakizun. Yon deunak 5, 14 = Orizu!; sendatu zera; aurrerontzean ez ogenik egin, okerragoren bat ez datorkizun.

Ala izanez, izenik ere ez bait-genduke izango. Oka-egina iaten duen orarekin (Gogo Deunak erkatzen alakoa). Itzurretan 26, 11 = Bere zorakerietara itzulitako zoroa, bere okastara biurtzen dan txakurra bezela da. Ora zikin... loira, hidoiztatzera, bihurtzen den urdearekin... (urreratzen eta idurikatzen beti ogenera amiltzen dana) Kepa deunak, bere bigarren eskutitzean 2, 22 = Txakurrak oka, ta ara millizka; eta, txerri ikuzia, lokatzera berriz. Bestelakoa zan arako Maite ua!! Oñak garbitu ditut; nola, bada, likitstukoitut? Atorra erauntzi dut; nola, bada, iauntziko dut? Abestirik Ederrena 5, 3 = Soñekoa erantzi dut; nola iantziko berriro? Oñak ikuzi ditut; zertarako ostera zikindu?

Au garbian ipintzen ari naizen ontan, Formosa'n naiz. Emengoek ba-dute oitura. Txukuna txito: negu eta uda, otz eta bero, euri ta ateri, beren soñña egunero ikuzten dute. Hakkatarrak esakeran ere olaxe esaten dute: *soñña ikuzi*. Eta, ez *urextatu*, *busti-aldi-artu* edo olako beste zerbait. Berialaxe, latsean goiz-goizean garbitutako soñekoak iantzi. Oñetakorik ez. Txiañalka orporik gabeko erdi-oñetako zerbait.

Beraz, Abestirik Ederrena idazti ontako 5-garren atalean esaten zaigunez, arako dei ua, etxe-barnean zanak soñña garbitu-ukuzi ta gero izan zun. Bustia leortu ondoren guriñak, usaiak eta osterakoak... atea zabaltzerakoan zer arritzeko mirra ttantaka izatea? Garbitasun ortan iraun dezagun azkeneraño! Fineraño eta finean perseberatzen duena, izanen da salbatua. Matai 10, 22 = Azkeneraño lirauken ori gaizkatuko da.

48. Atea, ate ertsia da, eta bidea ere bide meharra, Parabisurat doana; eta, gutiak dira bide hura edireiten dutenak. Matai 7, 14 = Bizitzarako atea, berriz, bai estu!, ta bai mear ara daraman bidea!, ta idorotzen dutenak gutxi dira. Aginduak osorik beteaz er-

dietsiko. Bertze guztiak kunplituagatik, batetan beaztopatzen bada, guztietan egiten da obenduri. Yakue deunarena, 2, 10 = Lege osoa beteta ere, agindu bat austen duna, guziekiko ogendun egiten da-ta.

Ontatik Paul deunaren negarra eta samiña. Ai ene titxa gabea! ene on-bearra eta urrikalkizuna. Nork libratuko nau gorputz mortal hunetarik? Erromarrei eskutitza 7, 24 = Nere zori txarra! Nork askatuko nau soin ilkor ontatik? Zeren, ni naiz aragiz eta aragiari emana; eta, Legea, Iainkoaren Manua, spiritu. Erromarrei 7, 14 = Bai bait-dakigu legea gogokoi dala; ni, berriz, aragikoi naiz ta ogenari saldua. Uztarri pisua eta karga andia darabillate soifnean Adan'en umeek, sortzen diran egunetik eriotzaraiño, bere ameen sabeletik ilkitzen diranetik, obira, guztien amagana bihur arteiño. Ikastunarena 40, 1 = Gizaki guziei, amasabeletik irten diranetik, guzien amarengana biurtzen diraño, ezarria zaie gaitz aundi, uztarri astun bat. Zeruko Erresumari bortxa egin bear zaika. Matai 11, 12 = Zeru-Iaurerria oldartua dabil, ta, artzaz, oldartsuak iabetzen dira. Soldadutasuna ta gizonaren lurreko bizitza, bat baitira. Yob 7, 1 = Gizakiak, lurreko aldia, gudaldi ez ote-du? Ioanes Ebanjelistaren errana da: ikusi zituela iustuen eskuetan palmak. Ageritakoan 7, 9 = eskuan palmak zekazten. Ezta koroatua izanen eta ez biktorios geldituko, zin-zinez permatzen eta guduztatzen eztena. Timote'ri bigarren eskutitzean 2, 5 = Sari-leiaketan ere buruntza ez du iñork beretzen, bear dan arauz leiatu ez ba'da.

Ene seme: asten zarenean Iainkoaren serbitzuan, zaude erne eta beldur zarela, eta presta zaite tentamenduei kontra egiteko. Ikastunarena 2, 1 = Ene seme! Iainkoaren morroi izaten asi nahiz ba'zera, zure burua azterketarako gertu. Idekoa dugu Paul deunak diona: sailduki eta prestuki, Iesukristo'k manatzen duen bezala bizi nai dutenak, izanen dira penatuak eta pertsegituak. Timote'ri bigarrena 3, 12 = Izan ere, IESU Kristo'rekin zintzo bizi nahi ezkerro, yazarraldia ba-dute iasatekoetan. Anhitz tribulamenduz, penaz eta traillaiaz bear dela zeruko Erresuman sartu. Bidalien Egiñetan 14, 22 = ...neke asko iasanez Iainkoaren errian sartu bear dala aiei azalduz. Atea, ate zabala, eta bidea ere bide andia eta espaziotsua da ifernurat dohana; eta anhitz ibiltzen da bide artan... Matai 7, 13 = galdutzarako atea ate aundia bait-da, ta ara daran bidea zabala, ta andik sartzen diranak asko dira.

49. Zatozte Enegana traillaizen zaretan guztiok eta kargaturik zaudetenok, eta Nik arinduko eta aise ibiniko zaituztet. Ar ezazue ene uztarria zeuen gainera, eta ikas ezazue Eneganik, zuen arimentzat bake eta sosegu. Matai 11, 28 = Neke eta lorretan zabilzaten guziok, Niregana zatozte!; ta Neuk pizkortuko zaituzt. (29) Nere uztarria leporatu eta Niregandik ikasi ezazute, biotz-bera eta apala naizan ezkerok; ta biotz-gentza didorokezute.

Amodio dutenei Manamendu guztiak iduritzen... manamendu bat. Amiorik eztutenei manamendu bat bera iduritzen... anhitz manamendu. Yon deunarena omen 14, 15 = Maite ba'nauzute, nere aginduak beteko dituzute. = (22) Iñork maite ba'nau, nere esana beteko du. (24) = Maite ez naunak, berriz, nere itza ez du aintzakotzat artzen.

Zure Manamenduen bidea hain da bide atsegina eta plazenta, non, hartan ibiltzeaz, munduko aberastasun guztien... atsegin artu baitut. Eresietan 119, 14 = Edonongo aberastasunetik baño poz geiago, zure aitoren bidetik artzen dut. Orixe'k 118 = Pozten naiz Zure bidearen ikaskizunetaz, ez ainbat ondasun guzietaz.

Ezin derraket zein gozo eta ezti zaizkidan neure ahoan eta ez-tarrian zure Manuak... ezti baño eztiago edireiteintut. Eresietan 119, 103 = Nere aorako Zure esana bai goxo! ezti baño geiago, noski. Orixe'k = Bai gozo Zure iarduna nere sapaiari! ezti baño ere nere gogoari. Iakob'i iduritu baitzeikan labur eta deus-guti... zazpi urtez... zerbitzuan ibiltzea... amorio baitziadukion. Asiera Idaztian 29, 20 = Egun gutxitzat izan zitun, arenganako maite-miñarengatik.

Apostoluek ere orduan zedutzaten beren buruak doatsuenik, noiz eta Iainkoagatik... laido geiago errezibitzen baitzuten. Bidalien Egiñetan 5, 41 = Aiek, berriz, pozik zioazen batzarre aurreandik, Iesu'ren Izenagatik iraingarri aurkitu ziralako.

Deliberatu nuen zure Manamenduen konplitzera, konplitzetik eldu zaitan probetxuagatik. Eresia 119, 112 = Nere biotza Zure aginduetara makurtu dut: zeatz eta beti *betetzeko*. Orixe'k = Zuk ezarriak betetzera biotza makurtu dut, beti eta zearo.

Sostenga ezazue... zaudete apur bat iratzarrik. Matai 26, 38 = Itxoin emen eta atzarri egon Nerekin. Ni, bertze guztiak baño

trabaiillatuago naiz; ez, ordea, neror, ez... Iainkoaren garazia enekin. Korintokoei lenengoa 15, 10 = Guziek baño lan geiago egin dut; ez nik, Iainkoaren eskerrak nerekin baño. Ezta gauzarik, neure esportzatzaillearekin batean eztaidikedanik. Pillipoitarrentzako eskutitzean 4, 13 = Edozertarako ba-naiz azkartzen naunaren indarrez Izan ere, ene uztarria leun... eta ene karga, ere, arin. Matai 11, 30 = Nere uztarria ta nere zama arifia.

50. Ene bekatuak iragan eta erdiratu dute ene burua, eta karga-sorta pisu batek bezala, aurizki eta zapatu naute naizen guztia. Eresietan 38, 5 = Nire ogenak burugañeraño moltzotu bait-zaizkit, eta zama astunak bezela sakatzen naute. Orixe'k 37, 5 = Nere obekak buruz gaiñetik daude, zamaren aundiz azpian naukate.

Zatozte enegana, trabaiillatzen zaretan guztiok eta kargaturik zaudetenok, eta nik arinduko zaituztet. Matai 11, 28 = Neke ta lorretan zabilzaten guziok, Niregana zatozte!; ta Neuk pizkortuko zaituzt. Bere eskuen trabaiilluak ianen dituela. Eresietan 128, 2 = Zure eskuen lanez irabazitakoa iatean, zoriontsu eta onez ioritsua zaiteke. Orixe'k 127 = Zure eskuen lana baituzu iango, zoriontsu zerake ta ongi zaizu ioango. Ene gauazko eta egunazko ogia, nigarrak ziren. Eresietan 42, 4 = gau ta egun nire ogia neronen malkoak ziran. Orixe'k 41 = gau ta egun ogi ditut malkoak.

Iauna, guk utzi ditugu, ditugun on guztiak zure amoreakgatik, eta iarraiki gatzazkitzu; zer izanen da, bada, gutzaz edo guretzat? Matai 19, 27 = Ona emen gu, dana utzita, garraizkizunok; zer izango da, ba, guretzat. Egiatz erraiten deratzuet... nork ere utziko baitu enegatik eta ene Ebanjelioagatik, etxerik, anaiarik, arrebarik, aitarik edo amarik, errezibituko duela orai, presenteko denbora hunetan, utziko duenetik eun geiago, eta gero bertze munduan bizitze eternala. Mark deunak 10, 29 = Ziñez dasaizuet: iñor ere ez dago, bere etxea, anai-arrebak, aita-amak, seme-alabak eta alorrek Niregatik eta Berri Onarengatik utzi ezkerok, (30) eunetan beste ainbeste artzen ez dunik orain, aldi ontan; etxe, anai, arreba, aita, ama, seme, alaba eta alorrek, iazarpenekin ezik; zeruan, berriz, betiko bizitza.

Ba'dirudite... probe, ezteus... ill-hurranak... barreanean darabilate gorderik bizitzea, zein baita Iesu Kristo. Kolosaitarrentzako

eskutitza 3, 3 = il baitzerate, ta zuen bizitza Iainkoagan Kisto'rekin ostenik bait-dago.

Ah! zein andia den, Iainkoak giristino beldur zaizkionentzat gorderik eta estalirik dadukan eztitasunaren multzutasuna. Eresietan 31, 20 = Yaube! Zure ontasuna bai aundi! Zure beldur diranei mardo egin diezuna, noski. Orixe'k 30 = Bai aundi, Iauna, Zure ontasuna! bildur dizutenentzat gorde duzuna. Dasta ezazue... ezta Iainkoa, dirudien bezain latz eta gaitz. Eresi 34-garrena 9 = Txasta eta ikus ezazute Yaube'ren adeiberatasuna. Orixe'k 33, 9 = Iasta eta ikus zein samur dan Iauna.

Olakoxea, arean: ura baño obeago... eztiaren pare. Itzaldiak idaztitan 32, 13 = Arkaitzetik ere ezta. Munduaren astetik huneraño, iendeak iende diranez-geroztik, ba'dakit puntu haur: gaixtoen laudorioa labor dela; eta hipokriten alegerantzia... puntu bat bezala. Yob 20, 4-5 = Ez ote-dakizu; lendabizitik, gizakia lurrean iarria izan danetik, gaiztoaren loraldia laburra, eta azalutsaren poza apur batekoa dala? Zer irabazi izan zenduten orduan, orai aipatzera ere ahalke zareten bekatu hetan? Erromarrei 6, 21 = Zer onik ateratzen zenuten orduan, orain lotsarazten zaitutenetatik?

51. Deitu zuen Iainko Iaunak Adam, eta geldegin zuen, ea non zen? Asiera Idaztitan 3, 9 = Yainko Yaube'k, gizonari dei egin eta esan zion: «Non ago?» Ondoren baita: Non da zure anaia Abel? Asiera idaztitan 4, 9 = Non duk Abel ire anaia?

Zer da haur? Ez ote-da arroxinarik edo atriakarik Galaadt'eko Irian, edo Midikurik han berean? Nolatan bada ene erriko alabaren zauria ezta sendatua? Yeremi igarlea 8, 22 = Gantzurik ez ote-da Galad'en? Sendatzallerik ez-ote? Zergatik, ba, ez da nere erriko alabarentzat sendagarririk izan?

Baldin egiten ezpaduzue penitentzia, guztiak fin-gaitz elkarrekin eginen duzue. Luka 13, 3-5 = Garbai ez ba'zerate, ostera, guziak ere orrela zuzituak izango zerate. Isurezazu zeure biotza ura bezela Iainkoaren aitzinean. Erosta 2, 19 = Ixuri ura bezela zure biotza Iaunaren aurrean!

52. Adiskidearen sekeretuak biluzten... dituenak, galtzen du... sinistea. Ikastuna 22, 17 = Adiskidea maite ezazu... bañan, ez io arengana, aren kuxelua zabaldu ba'duzu. Gauaz egiten nituen neure

gogoetak eta kontuak; eta, gero isatzaz iragaiten nuen neure kontzientzia. Eresietan 77, 7 = Gauetz nere barnean gomuta dagit, eta nere biotzarekin mintzatzen naiz galdeka. Orixe'k 76, 7 = Gauetz ari naiz buru-iraultzen, ausnartuz nerekiko gogoematen. Bekatuak... barka diatzagula. Matai 6, 12 = Asketsi gure zorrak. Perilean ibili nai dena, perilean galduko da. Ikastuna 3, 24 = Arriskuzalea arriskuan galduko da.

53. Iende galdu kontzientzia gabekoekin dabilla. Luka deunak 15, 2 = Onak ogenlariekin artu-emanak ba-ditu. Atseginago artzen dela zeruan ere, penitentzia egiten duen bekatore batez, laurretan ogoi eta emeretzi iustu, penitentziaren premiarik ez-tutenez baiño. Luka deuna 15, 7 = Orrela zeruan ere garbai dan ogenlari batengatik poz aundiagoa izango da, garbai izanenik ez duten larogeita emeretzi zindoagatik baiño.

Beti deiez baitagoka. Isai Igarlea 30, 18 = Orduko zai dago Yaube.

54. Luzatzen den esperantzak, nekatzen du gogo. Itzurretan 13, 12 = Itxoite luzeak, biotza aspertzen du. Utzi du Iainkoak; ar dezagun, beraz, guk; daramagun. Eresi 71, 11 = Iainkoak utzi dik! Gogor, orri! Atzemazute. Orixe'k 70, 11 = Iainkoak eskutik utzi du, ar zazute aurrean eta atzi!

Nik egin dut neure aldetik egiteko zen guztia. Yeremi igarlea 51, 9 = Babilon sendatu nai izan dugu.

55. Itsutuak ibili ziren, zeren bekatutan erori baitziren. Sopeni igarlea 1, 17 = Itsuak bezela dabilzke, Yaube'ren aurka ogen egin dutelako.

Guztiak baitira... zure serbitzuko ordenatuak eta zure oiñen azpiko eginak. Eresietan, 8, 7 = Zure eskuek egindakoen buru ipiñi duzu, guzia ere aren oñazpian iarririk. Orixe'k = Zure esku-lan guzien gain antzi eman diozu, guziak oinpera ditiozu.

Bekatuan zauden bitartean... bekatuaren... azpiko zabilza. Yon deuna 8, 34 = Ogen dagin edonor ogen azpiko da. Paretetan iosirik dauden arriek ere, zuzen dute eta arrazoin bekatorearen kontra iaikitzeke. Abakuk igarlea 2, 11 = Ormatik arriak oiue egingo du, eta ormako ezurretatik zurak darantzuike. Txatal onak esakun

zaar antza du: egunez sasiak begiak eta gabez belarriak. Euskaldunok *sasi* diogu, eta Formosa'n hakkatarrak onela esaten: ormak ere belarriak ditu. Formosa'n bertan, tayeldarrak onela: aizeak ere badiaki alakoaren berri.

Oriek oro... iaikiko direla azke-egunean. Yakintza 5, 20 = Arekin lurbira ogenlarien aurka burrukatuko da.

56. Begirautzue: egizue penitentzia; eta egizue, egin dituzuen bekatuen arauaz. Luka deuna 3, 8-9 = Sortu garbai-egintza iatorrak. Egon ere aizkora zugatz-erroari ezarrita dago. Beraz, arnan onik ez lekarren zugatz guzia erauzi ta surtara iaurtiko dute.

Orduan aiek: zer eginen dugu? Luka 3, 10 = Zer egin bear dugu, ba? Su, zufre, tormenta eta bertzerik anhitz pena ematen de-raue Iainkoak kondenatuei. Eresia 11, 6 = Sua, sulburra, eta aize kiskalia; orra, aientzat gertutako edaria. Orixe'k 10, 6 = Obendarien gañera txingarrak, ipernu-arria euri, sargori-aizea dute erauntsi.

57. Zoazte su eternalera. Matai 25, 41 = Txerrenarentzat eta aren aingeruentzat gerturik dagon betiko surtara... Ebakiko da, eta sura egotziko da. Matai 7, 19 = Ebaki eta surtara iaurtiko dute. Obenaren arauaz izanen da gatzigua ere. Itzaldiak idazti 25, 2 = Bere aurrean obenari legokionez astindu.

Zenbat atsegin eta plazer artu baitzuen, hanbat eta hainbertze desplazer eta atsekabe eman bekio. Yon'i Ageria 18, 7 = Goratu eta legunduta bizi izan dan giñoan, negar eta min ekazkiozute.

Bero andira iragan bedi elur-uretik; eta ezta ifernurairiño baratuko ere haren bekatua. Yob 24, 19 = Legorte eta beroak elur-ura xurgatzen dute: alaxe illunpe-barneak ere ogen egin dutenak. Zoazte, madarikatuak, su eternalera. Matai 25, 41 = Utikan... gaitzetsiok!, txerrenarentzat eta aren aingeruentzat gerturik dagon betiko surtara.

Madarikatua da hark lurraren gañean duen partea. Yob 24, 18 = Aien arloa landan biraogarri da... 19 = legortea eta beroak elur-ura xurgatzen. Han izanen... nigar eta ortz-karrask-ots. Matai 8, 12 = Ango negar eta ortz-karraska!! Biltatzue belar gaixtoak... multzuka eta zamaka, erratzeko elkarrekin. Matai 13, 30 = Iraka aurrenik bildu ta surtarako espalka lotu ezazute.

Ardi-artaldeak bezala... ifernuan egonen dira; erioak bazkatukoitu. Eresia 44, 12 = Arategirako ardiak bezela egiñak. Orixe'k 43, 12 = Ardiak antzo arategira bialdu gaituzu. Egun hetan..., desiratuko dute beren egunen fin eta akabantza... ez tute edirenen. Yon'i Ageria 9, 6 = Egun aietan gizakumeak eriotza billatuko dute; iritxi, ordea, ez. Heken arra ezta illen. Isai 66, 24 = Ez bait-da aien arra bein ere ilko.

58. Ertsi da... atea. Matai 25, 10 = Atea itxi egin zan. Halako lekuan, hain su beroan, gar eternalean nor egonen da? Isai 33, 15 = Nor bizi daiteke su ireskor artan? Nor dagoke betiko garretan? Zuhaitza norat erortzen baita, nahiz iguzki-aizerat edo mendebalerat... ezta handik igitzen. Gogoetak idaztian 11, 3 = Egoaldera naiz iparraldera erortzen ba'da zugatza, erori dan bertan geldituko da.

60. Heken beren faltaz. Ose Igarle 13, 9 = Ixrael galdu zera... Baldin nik mehatxatu nuen iendeak, egiten ba'du penitentzia bere bekatuaz, eginen dut nik ere egin gogo nioen gatziguaz. Yemi 18, 7-8 = Noizpait enda nahiz yaurerri bat erauzi, apurtu ta porrokatzera erabakita nagolarik, alako erria bere ogenetatik aldenzen da, ta orduan egin nai nion gaitzaz garbai izaten naiz. Denbora duguño, dagigun ongi. Galatiarrei 6, 10 = Astia duguño, guziei on dagiegun. Bila ezazue Iauna, ediren ahal ditekeien denboran. Isai 55, 6 = Yaube'ren billa ibili zaitezte idoro arte. Bilatuko nauzue, eta ez nauzue edirenen. Yon 7, 34 = Nere billa zabilzkete, ta ez nauzute idoroko. Eztezazula berant... bihur zaitezi lehen baiño lehen zeure Iainkoagana. Ikastuna 5, 8 = Iainkoarengana biurtzea ez luzatu, ta egunez-egun ez geroratu.